

Hizkuntzen galera

Europar Batasunean

Arriskurik ba ote da oraindik?

2018-2019 ikasturtea
Hiznet
Aintzane Toledo Lardi
Tutorea: Belen Uranga Arakistain

LABURPENA

Munduko hizkuntza aniztasuna oparoa da. Hizkuntza handien hedatzeak txikienen gainbehera dakar, hala eta guztiz ere. Gizakion historian zehar beti izan dira hizkuntzen joan-etorriak, desagerpenak, berrien sorrerak ... Arrazoiak ugari izan dira, gerrak, kolonizazioak, hizkuntzen bilakaera ezberdinak ... Globalizazio izeneko fenomeno baten aurrean gaude, gaur gaurkoz. Eta hizkuntza gutxituak ez ditu albo batera uzten; interneten hedakuntza, eta beste mila berrikuntza.

Europar Batasuna, ez da aipatutako horietatik guztietatik at geratzen. Gainera, kontuan izan behar dugu leku berean hizkuntza handi gehien duen lurraldea dela. Eta hori, noski, hizkuntza gutxituen aurka datorkigu. Beraz, Europar Batasunak aldarrikatzen duen aniztasun horri erantzunez, badu zeregina bere hizkuntza politika eta plangintzekin. Ez da hori bakarrik, immigrazioaren afera ere bertan dugu, zeinak hizkuntzen paisaia erabat aldatuko duen.

Hizkuntza gutxituen itsasoan gurea, euskara, oraindik ez zaigu ito. Baina, flotagailuekin gabiltza. Horrenbestez, ito aurretik erreskatatu dezagun.

Aurkibidea

0. Sarrera	1
1. Helburuak	2
2. Zer da hizkuntza?.....	2
2.1. Noiz deitzen dugu hizkuntza bat gutxitu edo minorizatu?.....	4
3. Hizkuntzen galera	5
3.1. Zeri deitzen diogu hizkuntza bat galtzea? Eta nola gertatzen da? ...	6
3.2. Faktoreak	9
3.3. Munduko egoera orokorra.....	13
4. Europar Batasuna.....	17
4.1. Europako hizkuntzak (gutxituak zein ez)	18
4.1.1. Aurrez / Dagoeneko desagertutako hizkuntzak	28
4.2. Hizkuntza ofizialak	29
4.3. Immigrazioa medio Europan hitz egiten diren hizkuntzak	33
4.4. Gutxitutako hizkuntzak	34
4.4.1. Hizkuntza gutxituen egoera	35
4.4.2. Arrisku mailen arabera sailkapena	36
4.5. Zein dira Europan hizkuntzak arriskuan egotearen arrazoiak?	
Historia pixka bat.....	37
4.5.1. Faktoreak.....	39
4.6. Europar Batasuneko hizkuntza politika	44
4.6.1. Nola eragiten digu horrek hizkuntza gutxituei?.....	47
5. Zer egin dezakegu egoerarik larrienean dauden hizkuntza horiek	
heriotza arriskutik ateratzeko? Nola eman buelta egoera horri?	48
6. Eta euskara?	50
7. Ondorioak	53
8. Bibliografia	55
9. Eranskinak	59

0. Sarrera

Hurrengo ikerlan honetan, hizkuntzen galera¹ deskribatu nahi da, horretarako bibliografia zehatz bat aztertuta. Zehazki, Europar Batasuneko hizkuntza gutxituen egoera deskribatzea izango du jomugatzat ikerlanak. Horretarako, lehenik eta behin, hizkuntza bat zer den definitzen saiatuko gara. Gure lanaren ikergai nagusia hizkuntza baita. Jarraian, hizkuntza gutxitu edo minorizatu zeri deitzen zaion argitzen saiatuko gara, jarraian lanean honakoak izango duen pisua medio.

Terminologia kontu horiek argitu ostean, hizkuntzen galera mundu zabaleko fenomeno gisa behatzen saiatuko gara. Hots, hizkuntza bat galtzea zer den azaltzen saiatuko gara. Lanaren ardatz nagusia denez, hizkuntza galerari buruz luze eta zabal mintzatuko gara. Zer den, zergatik gertatzen den, zein den munduko hizkuntzen egoera orokorra.

Lanak aurrera egiten duen heinean, Europar Batasunean zentratuko gara. Atal honetan, batez ere, Patxi Juaristiren 2006ko *Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean* lana oinarri hartuta, baina ez berau bakarrik; Europan zehar hitz egiten diren hizkuntzen zerrenda osatzen saiatuko gara. Hizkuntza horien guztien artean ofizialtasuna dutenak zein diren azalduko dugu. Horrez gain, tartetxo bat eskainiko diegu Europan bizi diren atzerritarren hizkuntzei, azken urteetan immigrazio mugimenduak areagotu egin baitira. Horren ostean, badakigunez Europako hizkuntzen artean ere arrisku maila ezberdinetakoak aurki ditzakegula, gutxitutakoak hautatu eta hauen egoera zein den azaltzen saiatuko gara. Eta hauen arrisku mailaren arabera sailkapena egiten ahaleginduko gara. Honekin bukatzeko, Europar Batasunaren hizkuntzen lege eta politikei erreparatuko diegu, azaletik.

Ikerketa honetan, gainera, arrisku egoeran dauden hizkuntza horien egoera nola hobe dezakegun proposatzen saiatuko gara. Aurrez esan bezala, arrisku maila ezberdinak egongo direla aurreikusita, hizkuntza edota hiztun komunitate bakoitzaren errealitatea oso ezberdina izango da. Beraz Fishmanen *RLS* ideia azalduko dugu.

¹ Lan honetarako *galera*, *galdu*, *galtze* hitzak hobetsi dira *hil*, *heriotza* moduko hitzen aurrean. Nahiz eta, gizartean zabalduriko erabilera izan hizkuntzen heriotzarena edo hizkuntzak hiltzearena, lan honetan ekiditen saiatuko gara. Hitz horiek izan ditzaketen konnotazio negatiboak direla eta egokiago jo dugu aipatutakoak erabiltzea.

Bukatu aurretik, noski, gure herriko hizkuntza ekarriko dugu: euskara. Euskaldunak izanik, ezin ahanztu baitezakegu gure hizkuntza Europako txikiena ez bada ere eta mundu modernora egokitzen asmatzen ari dela dirudien arren, euskara hizkuntza gutxitua dela eta arrisku egoeran dagoela. Beraz, lan honetan euskararen egoera soziala zertan den eta egoera hobe ote daitekeen behatuko dugu.

1. Helburuak

Finean, lan honetan bi helburu elkarlotzen saiatuko gara. Batetik, maila teorikoan hizkuntzen galeraren deskribapena egingo da: zergatik gertatzen den, eta orain arte ikertzaile ezberdinek egindako hurbilketak ekartzen. Horretarako, argi izan behar dugu lehenik eta behin hizkuntza bat galtzeak zer esan nahi duen, hiztun komunitate batentzat eta munduarentzat. Eta horri jarraiki, hizkuntza komunitate batek zein arrazoi izan ditzakeen bere jatorrizko hizkuntza alde batera uzteko. Hori guztiori hasiera batean, behintzat, mundu mailako ikuspegi orokorrarekin jorratuko da.

Bestetik, ordea, bibliografia behatuz Europar Batasuneko hizkuntzen egoera deskribatzea. Europaren kasuan bertan hitz egiten diren hizkuntzen zerrenda egiteaz gain, aurrez galdutako hizkuntzei ere toki bat egingo zaie. Oraindik gure artean jarraitzen duten hizkuntzen zerrendatik gutxituak zein diren argituko dugu. Gero horien artean arrisku mailen arabera sailkapena egingo dugu. Baina, ez gara azaleko zerrendatzean eta sailkapenean geratuko. Europako egoera aztertzeke, aurrez aipatutako hizkuntzak galtzeko arrazoiak bertan zein paper izan duten aipatuko dugu. Eta horrez gain, Europar Batasuneko hizkuntza legediari eta politikari helduko diegu.

Beraz, ikerlan honetan alde batetik hizkuntzen galerari buruz teorizatuko da. Eta horrez gain, kasu errealekara joz, Europar Batasunean arriskuan dauden hizkuntzak deskribatuko dira. Hori egin ostean hizkuntzen biziberritzeari buruz arituko gara. Azkenik, euskararen egoera, aurreko guztiaren haritik, aztertuko da.

2. Zer da hizkuntza?

Atal honetan ez genuke luze eta zabal mintzatu nahi. Baina, hizkuntzalariok eta hizkuntzarekin lanean aritzen garenok maiz izaten dugun dilema lan honetan ere islatu

nahi dugu: zer da hizkuntza eta zer ez da? Beraz, labur bada ere, argitzea komenigarritzat jo dugu, gure ikergai nagusia hizkuntza denez gero.

Hizkuntzaren definizio klasikoa bilatuko bagenu, Euskaltzaindiaren Literatura Terminoen Hiztegian honakoa topatuko genuke: Gizatalde² bateko partaideen arteko komunikazio harremanetarako baliagarri den zeinu sistema antolatua da.

Susan Gal (2006:13-14) ikertzaileak hizkuntza terminoa bera Europan sortu zela diosku. Hizkuntzak ez dio hitz egiteko gaitasun hutsari egiten erreferentzia, ezaugarri gehiago ditu. Hizkuntzak, besteak beste, zenbakarriak dira; pertsona bakoitzak bere hizkuntza edo hizkuntzak izan ditzake. Kontuan harturik, batak bestean eragin dezakeela, nahasketak gerta daitezkeela, eta abar. Bakoitza bere idiosinkrasia xarmagarriarekin. Galek adierazitako hizkuntzaren esanahi honen erroak Ilustrazio garaian sortu ziren, eta ondorengo erromantikoek eman zioten jarraipena.

Hona hemen Mackeyk (1993:13) dioena hizkuntzen definizioaren inguruan:

“Baldin eta hizkuntza batez ere, komunikazio-sistema bada, eta hori da eguneko hainbat teoriak proposatzen duena, edozein hizkuntzak balio du gizartea funtzionarazteko, elkar komunikazioa baita garrantzitsuena. Aldiz, hizkuntza, kultura bakoitzak eratutako kategorien arabera, unibertsoa ulertzeko bide ematen duen errepresentazio-sistema dela pentsatzen baldin bada, orduan, hizkuntza hori baztertzea gizakiaren identitatearen aurkako erasotzat hartuko da”

Hortaz, Mackeyk “kultura bakoitza” aipatzen duenean, beste arazo semantiko-pragmatiko batera garamatza. Oro har, esaten da hiztun komunitate bakoitzak baduela bere kultura eta baita bere hizkuntza ere. Honen harira, hizkuntzak kontatzerakoan arazoak izaten dira. Esate baterako, Juaristik (2018-19: 5-9) arazo hauetako zenbait

² Definizio honetan, hizkuntza gizakiok, soilik, dugun zerbait dela azpimarratzen du. Honi lotuta, hemen Macarenak (2003: 323) dioena gizakien eta animalien komunikazioaren arteko aldeaz: “La comunicación se da en muchas especies animales, a través de distintas formas o sistemas. Pero son sistemas muy limitados que les permiten comunicarse de una forma muy básica. (...) Otra función importante es la representativa, que diferencia el lenguaje humano del de los animales.”

azaltzen dizkigu. Batetik, mundu osoko hizkuntza guztien deskribapena ez dago egina. Bestetik, hizkuntzen izen ezberdinak hizkuntza berarentzat aurki ditzakegu.

Lan honetan Europar Batasuneko hizkuntzak zehazterakoan ere topatu ditugu honelako zailtasunak. Beraz, Romainek (1996) berak dioen bezala, hiztunek erabaki behar dute eurek hitz egiten dutena hizkuntza baten aldaera ote den edota alderantziz.

Crystalek (2017) adierazten duenez, zaila da munduan zenbat hizkuntza hitz egiten diren zehaztea, izan ere, hizkuntzen eta dialektoen arteko muga askotan ez dago argi. Horri gehitu behar genioke hizkuntza biziak etengabeko aldaketak izaten dituztela. Atal honetan honekin luzatu nahi ez badugu ere, gaur egun munduan 5.000-6.000 hizkuntza hitz egiten direla onartzen da.

2.1. Noiz deitzen dugu hizkuntza bat gutxitu edo minorizatu?

Aurreko atalean baliteke hizkuntza zer den edo ez xerkatzen luzatu izana. Baina, agian, lan honetan interesgarriago zaigu zehaztea hizkuntza bat noiz dagoen gutxitu edo minorizatu egoeran. Beste modu batera esateko, zein ezaugarri ditu hizkuntza gutxitu batek?

Arestian aipatutako Patxi Juaristiren 2006ko (906. or) lanari jarraiki, hizkuntza gutxitu terminoa, maiz, hiztun kopuru txikiarekin lotzen da. Edonola ere, jakin badakigu gugandik ez hain urrun baditugula hizkuntzak milioi bat hiztun baino gehiago dituztenak, eta hala eta guztiz ere, egoera minorizatuan daudenak. Besteak beste, ijitoera, okzitaniera, katalana, irlandera edo galiziera.

Giordanek (1993:108) honi buruzko aipamen hau gehitzen digu: hizkuntza "gutxitu" horiek ez dute, ez Europan ez beste inon, egoera nagusirik bizi erabiltzen diren gizarteetan. Badira hizkuntza minorizatuen artean hizkuntza ofizial heina dutenak, esaterako Irlandera edo Kataluniera; baita nazionala ere, hala nola Erromantxea Suitzan, eta hala eta guztiz ere gailentzen zaien hizkuntza bat dute.

Hortaz, esan dezakegu hizkuntza handia izanagatik, frantsesa kasu, 500 milioi hiztun eta 29 estatutan ofizial izanik ere, bere jatorrizko lurraldetik kanpo "gutxitutako" hizkuntza izan daitekeela. Esate baterako, Kanadako zenbait tokitan frantsesa bera ere gutxitutako hizkuntza da. Kasu honetan, estatu jakin baten barnean bada gutxitu, baina

bere jatorrizko eremuan hizkuntza nagusia da. Orokortasunetik begiratuta, hala ere, frantsesa ez dago egoera txarrean edo galtzeko zorian. (Mackey, 1993)

Lanean aurrerago azalduko dugun modura, gure lanaren ardatz den Europar Batasunean populazioaren %0,8ak (4 milioi hiztunek) hizkuntza gutxitu bat hitz egiten dute. Txanponaren ifrentzua, berriz, Europan kokatzen diren hizkuntza erraldoien kopurua genuke. Hala ere, ohartu behar dugu hizkuntza gutxituak hitz egiten dituzten hiztun horiek beste hizkuntzaren bat ere hitz egingo dutela.

Atal honekin bukatzeko, Susan Galek (2006) aipatzen digu gaur egun Europan hizkuntza estandarraren ideologia dagoela hedaturik. Momentu hauetan, hizkuntza ofiziala bera baino gehiago erabiltzen da hizkuntza estandar terminoa. Estandarra, eredu edo arau jakin bati jarraitzen diona, denena, ohikoa, arrunta.³ Baina termino horrek bere itzalean gordetzen ditu hizkuntza-jarrerak, bereziki, gutxiengo eta immigranteen hizkuntzekiko.

Beraz, ondoriozta dezakegu hizkuntza bat lurralde batean gutxitu izateko beste hizkuntza batek gutxitu behar duela. Elebitasun edo eleaniztasun horren kariatara, botere gutxien duen hizkuntza bilakatuko da gutxitutako hizkuntza. Eta horren ondorioz, elkarrekin biziko direla gutxitu horrek irauteko indarra duen bitartean behintzat. Hots, beste hizkuntza batekiko menpekotasuna izango du gutxitutako hizkuntzak, menpekotasuna edozein eratakoa izan daitekeelarik: politikoa, soziala, ekonomikoa ...

3. Hizkuntzen galera

Honako atal honi hasiera emateko, David Crystalen (2017: 107) hitzak ekarri nahi genituzke:

“Giza historian zehar hizkuntzak etengabe agertu eta hil arren, XX. mendeko bigarren erdian hasi zen hizkuntzen arrisku eta heriotza prozesua jendartean agertzen. Gertakarien zergatia azaltzea erraza da, hala eta guztiz ere, ez dakigu ziurtasunez zifren kopurua zein den. Munduan dauden 6000 hizkuntza baino gehiagotatik litekeena da XXI. mendea bukatu baino

³ Definizio honetarako Euskaltzaindiaren Hiztegia erabili da.

lehen, hizkuntzen erdia gutxi gorabehera desagertzea (hamabost egunetatik behin hizkuntza bat hilko litzateke). Dakigunaren arabera, zifra hori historian zehar izandako txarrena da eta arrazoi nagusia nazioarteko hizkuntzek eta kulturek sortutako eragina da” (Crystal, 2017)

David Crystalen hitz hauei Romaineren (2007: 116) lanetik hurrengo hitz hauek gehituko nizkieke:

“For most of the many millennia of human history, it seems likely that the world was close to linguistic equilibrium, i.e., the number of languages lost roughly equalled the new ones created. The reason why this balance persisted so long is that there were no massive, enduring differences among the expansionary potentials of different peoples, of the kind that might cause the sustained expansion of a single, dominant language” (Romaine, 2007)

3.1. Zeri deitzen diogu hizkuntza bat galtzea? Eta nola gertatzen da?

Hizkuntza bat galdu dela, oro har, azken hiztuna hil denean esaten da. Nahiz eta, zenbait kasutan hizkuntza bat heriotza humanorik gabe gal daitekeen. Horrela bada, hiztun komunitate batek bere hizkuntza erabiltzeari uzten dion momentu horretan ez da hizkuntza dagoeneko hil? Edo komunitate horretan hizkuntza erabili gabe ere komunitate horretan hizkuntza bazekien azken pertsona hiltzean hil da hizkuntza?

Hizkuntza bat galtzea, edo gizartean ezagunagoa den terminoa “hiltzea”, finean, gutxitze edo galera prozesu baten amaiera da. Hots, hizkuntza bat erabiltzeari uztea eta horren ordez beste bat erabiltzen hastea litzateke hizkuntza bat galtzea. Hots, hizkuntza baten galtzea ordezkatze prozesu batekin hasten da. Esan beharrik ez dago, hizkuntza batek bizirauteko behar beharrezkoa duela transmisioa.

Hizkuntza bat galdu edo hil daiteke, noski, baina askotan hizkuntza hori beste batean eraldatzen da. Esaterako, latinaren kasua. Latina gaur egun ez dago bizirik, baina modu batera edo bestera esan genezake baietz, bere ondorengo diren hizkuntza mordoa baititugu. Era berean, hizkuntza bat beste batekin nahas daiteke, eta bi hizkuntzen nahasketatik pidginak eta ondoren kreoleak sortu. Kreoleak, oro har, kolonietan sortu izan dira. Famatua da esate baterako, frantziar kreoleen artean Haitiko kreolera.

Halere, garbi izan behar dugu askotan ez dela erabaki edo hautu pertsonala hizkuntza bat erabili edo bestea erabili. Hizkuntzak, bere horretan, ez baitira bata bestea baino hobeak aukeratzeko. Hizkuntza horri gizarteak atxiki dizkion baloreak izan ohi dira hautuaren arrazoiak.

Carme Junyent hizkuntzalari katalanaren (1996) ustez, hizkuntza baten heriotza ordezkapen prozesu batetik hasten da, oro har. Eta ordezkapen prozesu bat gerta dadin, elebitasun egoera bat izan behar dugu. Prozesu hauetan, noski, hiztun-taldeek hartzen dute parte. Baina, norbanako batek zergatik erabakitzen du bere hizkuntza aldatzea?

Hiztun bat puntu horretara iristeko, hizkuntzaz kanpoko faktoreak izaten dira arrazoi nagusi. Normalean, prestigio kontua izaten da. Hizkuntza batek prestigioa galtzen badu, hiztunek ere prestigioa galtzen dute. Ordezkapen prozesuak, ez dira gauetik egunera gertatzen. Junyentek diosku lau belaunaldiren bueltan hiztun taldeak hizkuntza batetik besterako jauzia egin dezaketela:

Lehenen belaunaldia: elebiduna izan daiteke.

Bigarren belaunaldia: hizkuntza azpiratuaren⁴ jatorrizko hiztuna bada ere, hizkuntza menperatzailea ikasten du. Belaunaldi honek gaitasun handiagoa badu ere hizkuntza azpiratuan, ez dio hizkuntza hau transmititzen bere ondorengoei.

Hirugarren belaunaldia: elebidunak izaten jarraitzen dute, baina dagoeneko hizkuntza menperatzailean trebeago moldatzen da. Nahiz eta, bere aurreko belaunaldiak hizkuntza azpiratuan ulertzeko gai den oraindik.

Laugarren belaunaldia: Dagoeneko elebakarra izan daiteke belaunaldi hau.

Geroago ikusiko dugun moduan, gizarte edo hizkuntza talde batek bere jatorrizko hizkuntza ordezkatzeko hainbat arrazoi izan ditzake (ik. 3.3. Faktoreak). Hala ere, jarraian ikus dezakegun bezala, ordezkapen prozesu ezberdinetan zenbait konstante edo ezaugarri errepikatzen direla ikusi ahal izan da:

-ADINA: Orokortu ezin daitekeen arren, oro har mehatxupear dagoen hizkuntzarekiko leialtasun handiagoa erakusten dute helduek. Adina jaitsi ahala

⁴ Junyeten (1996) lanean «errezesibo» terminoa darabil, horren ordain gisa «azpiratu» erabili da lan honetan.

elebitasun orekatuagoa nabari dezakegu. Gazteenen artean, berriz, hizkuntza menperatzailearekiko leialtasuna erakusten dute. Horrek adierazten digu hiztun gazteenentzat beren jatorrizko hizkuntzak indarra galdu duela eta hizkuntza menperatzailea gehiago erabiltzen dutela. (Junyent, 1996; Romaine, 2007)

-SEXUA: Orain arteko gizarte tradizionalan, hizkuntza transmititzearen lana emakumeek izan dute. Hau da, emakumeak izan dira etxean geratzen zirenak umeak zaintzen, hazten eta hezten. Hala bada, hauen eginkizuna izan da hizkuntza transmititzea ere. Horregatik, izan dira maiz ordezkapen prozesua jasan duten komunitateetan emakumeak «azken» hiztunak. Hala ere, baditugu aurkako kasuak ere. Hau da, gizonezkoek hizkuntzari eutsi dieten kasuak. Junyentek (2011:41) Botswanako «kalanga» taldekoen kasua dakar.

Hala ere, badakigu gizartea garatu dela eta emakumea lan munduan sartu dela. Honek hizkuntzari ere ekarri dizkio bere aldaketak. Hori dela eta, emakumeek hizkuntza azpirakorretik menperatzaileara jauzia errazago egiten baitute (Junyent: 42). Bi aldiz direlako minoria. Horrez gain, beren seme-alabek hizkuntza menperatzailea ongi menderatzea nahi dute, etorkizun hobe izango dutelakoan. Esan beharra dago, honekin ere denetariko adibideak topa ditzakegula.⁵

-GIZARTE MAILA: Junyeten lanarekin jarraituz, esan dezakegu, klaserik baxuenek gehiago darabiltela euren hizkuntza, maila altukoek baino. Eta mailarik baxuenetan transmisioa gehiago bermatzen da. Honenbestez, menperatua izan den hizkuntza hori estatus baxuarekin lot daiteke. Hori guztia medio, maila sozialetan goratzeko hizkuntzaren ordezkapena izan daiteke bideetako bat.

-JATORRIA: Junyenten arabera, jatorriari buruz ari garenean dikotomia baten aurrean gaude: nekazal giroa edo hiri ingurua. Laburbilduz, esan ohi da, hizkuntzari eustea errazagoa dela nekazal giroan bizi direnentzat, hirian bizita baino. Kontuan izanik gaur egungo gizartearen demografia mugimenduak nekazal guneetatik hirirantzkoak direla, hizkuntza menperatzailearen alde jotzen du honek.

Honaino aipatutakoak ezaugarritzat jo ditzakegu. Hau da, hizkuntza ordezkatzeko aukera gehiago edo gutxiago du pertsona batek ezaugarri horien arabera. Jarraian, ikus ditzagun hiztun komunitate batek zein arrazoi izan ditzakeen hizkuntza aldatzeko.

⁵ Junyenten (1996) lanean adibide gehiago eta anitzagoak dakartza.

3.2. Faktoreak

Hizkuntzak, beraz, ez dira galtzen hiztun bakar batek hala erabakita. Oro har, gizarte edo hiztun-komunitate horrek bere hizkuntza ordezkatzeko beharra ikusi duelako baizik. Nahiz eta, azkenean, hiztun bakoitzak hartzen duen hizkuntza bat besteagatik ordezkatzeko erabakia.

Hizkuntza ordezkapena eskala anitzeko prozesu baten eta era askotako presioen ondorio da. Presioak: sozialak, kulturalak, ekonomikoak zein militarrek izan daitezke. Horri, mundu globalaren ideia gaineratu behar genioke.

Hizkuntzak “hiltzeko” edo galtzeko ere, modu ezberdinak daude. Beraz, hizkuntzen galera prozesua ez da bat eta bakarra. Ez da dago hizkuntza guztien galera azaltzeko balio duen formularik. Hizkuntza bakoitzak, edo baliteke egokiago suertatzea hiztun-komunitate bakoitzak, bere bidea du. Horrenbestez, esan dezakegu, jarraian ikusiko dugunez, hizkuntzak bat-batean edota poliki-poliki gal daitezkeela, bat besteagatik ordezkatzuz.

Juaristiri (2018-19:26) jarraiki, ezagutzen dira kasuak non hiztun guztiak batera desagertu diren edo hil dituzten. Hortaz, hiztun horiekin batera galdu edo hil dute hizkuntza. Tasmaniako eta El Salvadorreko kasuak dakartzkigu. Gainera, masakre horietatik baten bat libratu bazen, ikusirik hizkuntza menperatzailea hitz egin ezean zer gertatuko litzaiokeen, bere jatorrizko hizkuntza ordezkatzeko eta ondorengoei ez transmititzea erabakiko zukeen. Ondorioz, hiztun guztiak akabatu gabe ere hizkuntza akabatu liteke.

Alta, hizkuntza ordezkatzeko gizakiok hainbat arrazoi izan ditzakegu, arestian aipatu moduan. Baina, azpimarratuko nuke faktore horiek ere, normalean, elkar gurutza daitezkeela.

Alde batetik, Hagege-k (2000, in Juaristi, 2018-19:30) azaltzen digu hizkuntzak hiltzeko hiru bide edo zio ditugula:

1. **Zio fisikoak:** Hondamendi naturalak edo gizakiok eragindakoak izan daitezke. Ondoriotzat hiztunen gutxitzea, sarraskiak edo heriotza izaten dute.
2. **Zio ekonomiko eta sozialak:** Herri bat beste batek menderatzen du. Hori dela eta, menderatzailearen hizkuntza eta kultura nagusitzen da. Honek, normalean,

menderatua izan den herriko hizkuntza eta kulturaren gutxiespen eta gaitzespena dakartza.

3. **Zio politikoak:** Beste herri, gizarte edo estatu baten ezarpenarekin gertatzen dira.

Juaristiren lanean (2018-19:44-15 or), zazpi arazo agertzen zaizkigu mundu globalizatuan hizkuntzak galtzeko arrazoiak izan daitezkeenak. Hona hemen Juaristiren laneko taula:

Arazo politiko eta militarrek	% 5,1
Aldaketa soziokulturei lotutako arazoak	%10,9
Arrazoi ekonomikoekin lotutako arazoak	%6,3
Arrazoi demografikoei lotutako arazoak	%14,3
Erakundeen laguntza falta	%21,4
Jarrereri lotutako arazoak	%25,1
Egoera linguistikoari lotutako arazoak	%16,8

Segidan, arazoetako bakoitza banan-banan behatzen saiatuko gara. Betiere, ahaztu gabe, lehen ere esan dugun bezala, arazo hauetako bakoitza ez dela independenteki gertatuko. Normalean, batak bestea ekarriko du, katean. Has gaitezen bada:

1. Arazo politiko eta militarrek

Juaristik (2018-19) arazo politiko eta militarretan hurrengo gatazkak aipatzen dizkigu: kolonizazioak, konkistak, lurraldearen okupazioak, lurraldearen banaketa politikoak, okupazio militarrek, paramilitarren parte-hartzeak, suntsiketak, genozidioak, masakreak, holokaustoak, errepresioak, mirabeen salerosketak, deportazioak eta bortxaz egindako lekualdatzeak, muga administratiboek sortzen dituzten gatazkak, giza eskubideen bortxaketak, mehatxu politikoak, diskriminazio politikoak, barne politikaren egonkortasun falta edota barne gatazkak eta autonomia politiko falta.

Honako hauek guztiek ondorio oso negatiboak dituzte hizkuntzentzat. Areago, munduko hizkuntza asko eta asko desagertu egin dira, edo desagertzeko zorian daude,

horrelako aferengatik. Jakin badakigu, tamalez, horrelako asko izan direla historian zehar eta izaten jarraitzen dutela gaur egun munduan zehar⁶

2. Aldaketa soziokulturalei lotutako arazoak

Atal honen izenburuak honako hauei egin nahi lieke erreferentzia: modernizazioa eta lurraldearen urbanizazioa, hezkuntzaren modernizazioa, beste kultura batzuen eragina, erlijioaren eragina, kultur autonomia falta, asimilazioa eta identitate kulturalaren galera, mendekotasuna, prestigio falta, diskriminazio soziala, bazterketa eta degradazio soziala eta bizi maila txarrak.

Dagoeneko aipatu ditugu modernizazioa eta lurraldearen urbanizazioa. Litekeena da, modernizazio azeleratuak eta modu basatian egindako etxegintzak hizkuntzengan sortutako eragina uste baino negatiboagoa izatea, hizkuntza aniztasuna deuseztatzen baitute. (Juaristi, 2018-19).

3. Arrazoi ekonomikoekin lotutako arazoak

Hiztun komunitate baten ekonomiak zuzenki eragingo dio bere hizkuntzari. Horregatik, Egitura ekonomikoen aldaketak, krisi ekonomikoak, txirotasunak, mendekotasun ekonomikoak, biztanleriaren gehiegizko zorrak, lurraren propietatearen galerak, lur urritasunak, bizi-mailaren gutxitzeak, gehiegizko ustiaketa ekonomikoak edo langabezia hizkuntzen aniztasunaren aurka doaz.

Hari horri jarraiki, ezin ahatz dezakegu gaur egun puri-purian dugun globalizazioa. Honekin hizkuntzek bizirauteko dituzten arazoak areagotu egingo baitira. Globalizazioak berarekin dakarren merkataritza librea, monopolioak, oligopolioak eta multinazionalak ez dute hizkuntzarekiko begirunerik. (Juaristi, 2018-19)

4. Arrazoi demografikoei lotutako arazoak

Demografia hizkuntza batentzat arazo izan daiteke. Finean, hiztunak baitira hizkuntzak. Hala, honako arazo honetan honako hauek aipatu behar genituzke: hiztunen kopurua gutxitzea, jaiotza-tasen txikitzea, biztanleriaren zahartzea, ezkontza mistoak, emigrazioa eta immigrazioa.

⁶ Nahi duenarentzat Juaristiren lanean luze eta zabal hitz egiten da arazo bakoitzari buruz, adibide askorekin.

5. Erakundeen laguntza falta

Hizkuntza andana aurkitzen da munduan ofizialtasunik gabe. Eta hori gutxi balitz, inolako babes eta laguntzarik gabe erakundeen aldetik. Askotan, gainera, lagundu beharrean trabak ere jartzen dizkiete hizkuntza gutxituei.

Hala ere, dirudienez, munduko hainbat lurraldetan gauzak aldatzen ari dira hizkuntza gutxituei dagokienez. Europan, batez ere, legeak sortzen ari dira eta eskubideak bermatzen hizkuntza gutxituetako hiztunei. Nahiz eta, Juaristik (2018-19:20) berak gogorarazten digun, teoriarik, paperetan gauza asko jasotzen diren arren, errealitatean ez direla gauzatzen.

6. Jarrereri lotutako arazoak

Hizkuntza gutxitu gehienek arazoak izaten dituzte hiztun komunitateko jatorrizko hizkuntzarekiko jarrera negatiboekin. Esan genezake, oro har, gazteenek izaten dituztela jarraian aipatuko ditugun jarrerak: beste hizkuntza batzuk nahiago izatea, hizkuntza gorrotatzea, hizkuntzarekiko ardura gutxi izatea, hizkuntza esparru oso mugatuetan erabili ahal izatea, zaharrek bakarrik erabiltzen dutelako edota transmisioa eten delako.

Globalizazioak norberaren hizkuntzarekiko duten jarrera negatiboa areagotu dezake. Prestigio faltak beste hizkuntza batzuen mesedetan jokatzen du. Komunikabideek eta lanerako tresna izateak dakarkie hizkuntzei prestigio edota onarpena. Arrazoi horiek medio, gazte askok beren ama-hizkuntza ez transmititzea erabaki dezakete; eta ondorioz, hizkuntza aniztasuna gal daiteke. (Juaristi, 2018-19:61-62)

7. Egoera linguistikoari lotutako arazoak

Hizkuntzak egoera ezberdin eta konplexu askotan bizi daitezke. Esaterako: elebitasuna eta diglosia, lingua franka bezala beste hizkuntza batzuk erabiltzeko joera, estandarizazio eta forma idatzien falta, hizkeren arteko gehiegizko banaketa, hizkuntzaren modernizazio falta, argitalpenen gabezia eta hizkuntzaren ordezkapena.

Juaristiren (2018-19:64) ustez, hizkuntza handiak indartu egingo dira globalizazioarekin. Eta horrek ondorio latzak izango ditu hizkuntza txiki askorentzat. Gutxitutako hizkuntzak estandarizatzen eta modernizatzen ez badira, oso negatiboak izango dira elebitasunaren eta diglosiaren, hizkuntzaren estatus faltaren eta beste

hizkuntza batzuen eraginaren ondorioak. Areago, gauzak asko aldatzen ez badira, 40 edo 50 urtetan munduko hizkuntza asko eta asko desagertu egingo direla pentsa daiteke. (Juaristi, 2018-19:64)

3.3. Munduko egoera orokorra

Arestian aipatu legez, gaur egun, Romainek (2007) azaltzen duen moduan, Lur planetan 5.000-6.000 hizkuntza inguru hitz egiten direla esan ohi da. Esan bezala, hizkuntzak eta hiztunak proportzioan joango balira, hizkuntza bakoitzak 820.000 hiztun izan behar lituzke. Errealitatean, berriz, hizkuntzen %5 bakarrik dago milioi bat hiztunen langaz gaindi.




Fig. 1. Inverse relation between number of languages and size of population.

Romaineren (2007:118) laneko irudi honek argi adierazten du munduko egoera. Munduko biztanleriaren %80ak 75 hizkuntza hitz egiten ditu. Hizkuntza hauek 10 milioi hiztunetik gora dituzte. Eta horietatik 8k besterik ez dituzte 100 milioi hiztunetik gora. Munduko biztanleriaren %80ak 75 hizkuntza hitz egiten ditu. Hizkuntza handi hauek mundu guztian zehar hitz egiten dira. Baina, munduan hitz egiten diren gainerako hizkuntza gehienak 10.000 hiztunetik beherakoak dira. Aipatutako 75 hizkuntza horiek ez diren hizkuntza gehienak nolabaiteko arrisku egoeran aurkitzen dira. Hori dela eta, UNESCOk 2009an *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen Atlas*a argitaratu zuen. Bertan, 5 arrisku maila banatu zituzten:

- **Salbu dauden hizkuntzak⁷ (Safe):**

Belaunaldi guztiek hitz egiten dut eta euren artean hizkuntza naturalki transmititzen da. Ereku eta funtzio guztietan erabiltzen da. Populazioaren %100ak hitz egiten du. Talde etnolinguistikoaren hizkuntza identitatea, pentsamendua, sormena ... adierazten dituen hizkuntza da. Normalean, hizkuntza arautzen duen akademia badu. Teknologia eta media berri guztiak eskura ditu. Hizkuntza egoera anitzetan idatzia da, eskolan ikasten dute hurrek. Hezkuntzan, administrazioan eta abar idazkiak badira.

- **Salbu ez dauden hizkuntzak (Vulnerable):** 📍⁸

Haur batzuek hizkuntza ereku guztietan erabiltzen duten arren, beste batzuek ereku zehatz batzuetan bakarrik erabiltzen dute, adibidez, eskolan. Ez du populazio osoak hitz egiten, baina bai zati handi batek. Gizarteko eremuetan bi hizkuntza daude presente normalean. Teknologia eta media berri gehienetan erabiltzen da. Testu idatzia badira, hurrek eskolan ikasten dute hizkuntza idazten. Horrez gain, literatura sorkuntza bada. Unescok dioenez euskara (EAE) hemen kokatuko litzateke.

- **Arriskuan dauden hizkuntzak (Definitely endangered):** 📍

Dagoeneko umeez ez dute hizkuntza etxean ikasten, belaunaldien arteko transmisioa galdu da. Helduek badakite, baina ez diete beren seme-alabei erakutsi. Beraz, hizkuntza nagusia tokia irabazten ari zaio arriskuan dagoen hizkuntzari, kalean eta etxean. Aragoiera, asturiera edota gaskoia hemen koka daitezke. Zerbait egiten ez bada, desagertu egin daitezke. Teknologia eta media berri asko eskura ditu. Testu idatzia badaude, eta hurrek eskolan ikasten dute hizkuntzan idazten. Nahiz eta, literatura ez den sustatzen.

- **Gutiz arriskuan dauden hizkuntzak (Severely endangered):** 📍

Aitona-amonen belaunaldiak hitz egiten du bakarrik, eta gurasoen belaunaldiak ulertu egiten du, baina beraien artean ez dute hizkuntza erabiltzen eta ez die euren seme-alabei transmititzen. Oso ereku urri eta zehatzetan erabiltzen da, kalean ez du

⁷ Lana egiterakoan ingelesezko bertsioa erabili bada ere, euskarazko ordainak emateko P. Juaristiren ordainak erabili dira.

⁸ Irudi eta kolore hauekin identifikatzen ditu arrisku mailak Unescoren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen Atlasak*

ikusgarritasunik. Teknologia eta media berri batzuk eskura ditu. Testu idatziak badiren arren, gutxi batzuek bakarrik uler ditzakete. Gainerakoentzat esanahi sinbolikoa du.

- **Desagertzeko zorian dauden hizkuntzak (*Critically endangered*):** 📍

Aitona-amonak eta belaunaldi zaharrenak dira hizkuntza dakiten gazteenak, eta, gainera, oso gutxitan erabiltzen dute. Erabilera esparru oso murrizta du, ospakizun berezietan eta pertsona gutxi eta jakitun batzuk (esaterako, apaizek). Egoera honetan, hiztun komunitatean “*remembers*” edo “*oroitzaileak*” daude. Teknologia eta media berri gutxi batzuk eskura ditu. Ortografia gutxi, hala ere, zerbait badago idatzita.

- **Desagertutako hizkuntzak (*Extinct*):** 📍

Hiztun guztiak desagertu egin dira. Ez du inork, inon hitz egiten. 1950etik 250 bat hizkuntza desagertu omen dira. Ez da inolako teknologia berri eta mediotan erabiltzen. Ez du ortografiarik.

Horrez gain, hizkuntza bat arrisku maila batean edo bestean sailkatzeko, *Language Vitality and Endangerment* (2003) txostenean aurkezten diren 9 faktoreak erabiltzen dira. Txosten honen arabera, hizkuntzen bizi-indarrean 9 faktorek eragiten dute:


1. Belaunaldien arteko transmisioa
2. Hiztunen kopuru absolutua
3. Hiztunen proportzioa biztanleria osoaren baitan
4. Aldaketak hizkuntzaren erabileran
5. Eremu berrietan eta hedabideetan egiten den hizkuntzaren erabilera
6. Irakaskuntzan duen presentzia
7. Gobernuen eta erakundeen politikak eta jarrerak hizkuntzarekiko
8. Hiztunen jarrerak euren hizkuntzarekiko
9. Hizkuntzari buruzko dokumentazioaren berezitasunak eta kalitatea

Hizkuntzek bizi duten egoera lasgarri hau ikusita, aditu asko eta asko dira hizkuntzen ekologiaren ideia plazaratu dutenak. Romainek (2007:128-129) diosku animaliek eta landareek bizi duten arrisku egoera eta hizkuntzena, zifretan, antzekoa dela.

Hari horri jarraiki, hizkuntza ekologiaren ideia plazaratzen lehena Eigen Haugen izan zen 1971-1972 urteen bueltan (Erize, 2011:68). Gainera, puntako autore batzuk (Grin, 2005; Hult, 2010; edo Mühlhäusler, 2003) bat datoz ideia honekin.

Finean, hizkuntza ekologiaren ideiak hizkuntzak eta biodibertsitatea parekatzen ditu. Filosofia ekologistaren balioetan inspiratuta, analogiaz hizkuntzen gaitara hedatutako edo ekarritako kontzeptua dugu hizkuntza ekologia (Haugen, 1971/1972 in Erize, 2011). Hortaz, hizkuntza ekologiak aniztasun ekolinguistikoaren defentsa egiten du.

Hurrengo irudi honek (Romaine, 2007:128) erakusten digu, teoria honen alde, hizkuntza aniztasun gehien duten lurraldeek eta biodibertsitate gehien duten lurraldeek bat egiten dutela:



Ez da noski kasualitate hutsa, nahiz eta horretan eragiten duten faktoreek ziur aski soziolinguistikaz haratagoko diziplinen beharra izan (Erize, 2011). Hala nola, klima, historia, ekonomia, gizartea eta abar (Romaine, 2007).

Crystalek (2017) diosku, dudarik gabe, sekulako amildegia dagoela espezieen galeraren kontzientzia (mugimendu ekologistarekin lotzen dena) eta hizkuntzen galeraren kontzientzia publikoaren artean. Gizartearen zati handi batek oraindik orain hizkuntza kontzientzia garatu beharra du. "Hizkuntza gutxituen" etorkizuna gizateria osoari dagokio, ezen hizkuntzen babesa da helburua eta ez bada osotasunaren kontzientziarik hartzen desagertzera kondenaturik baitaude. Lur osoaren mailan hizkuntz ekologiako politika bat abian jartzeko unea iritsi da. (Giordan, 1993: 119)

Mugimendu ekologistarekin orokorrean alderatuta, hizkuntzen aldeko mugimenduek jende gutxiren arreta erakarri dute, izan ere, duela gutxikoak dira. Hala ere, ez dago zalantzarik egoera serioa denik. Proportzionalki, hizkuntzen desagertze arriskua animalia eta landare espezieena baino askoz ere handiagoa da, inork ez baitu aurreikusi munduko espezieen erdia hurrengo mendean desagertuko denik. (Crystal, 2017)

Nolanahi ere, ez genuke ahaztu behar naturarekiko paralelismoak onurak beste kalte ekar dezakela. Alegia, batzuek bioaniztasunaren onurak aldarrikatzen dituzten bitartean, teoriaren kritikoek hizkuntzen sorrera → garapena → heriotza prozesuaren naturaltasuna argudiatzen dute. (X. Erize, 2011: 76). Hori dela eta, Erizek 2001ko artikuluan bertan (Erize, 2011:81), ekologiaren ideiarekin ondoan iraunkortasunaren alde egiten du.

4. Europar Batasuna

Europar Batasuna II. Mundu Gerraren ostean sortu zen, Europako estatuen batasun politiko eta ekonomikoaren beharra sumatu zelako; eta beraz, hori lortzeko asmotan. Esan liteke, 1958ko Erromako Itunarekin eman zitzaioela hasiera. Momentu hartan Alemaniako Errepublika Federala, Herbehereak, Frantzia, Luxenburgo, Belgika eta Italia ziren estatu-kideak. Gaur gaurkoz, 28 estatu dira Europar Batasuneko kideak: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Danimarka, Erresuma Batua⁹, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Irlanda, Italia, Kroazia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Portugal, Suedia, Txekia, Txipre.

Arestian mundu mailako datuak ematerakoan aurreratu dugun moduan, Juaristiren 2006ko lanean dioenez, Europan munduko hizkuntza guztien (6000 inguru) %1 hitz egiten da. Hau da, munduko 6000 hizkuntzetatik Europan 60 besterik ez ditugu hitz egiten (migrazioengatik hitz egiten direnak albo batera utzita). Gainera, 60 hizkuntza horietatik populazioaren %0,8 besterik ez du gutxitutako hizkuntza hitz egiten, hau da, lau milioi pertsonak. Ondorioz, populazioaren %99,2 hizkuntza handien hiztunak dira. Oro har, milioi hiztunetik gorako eta boterean dauden hizkuntzei egiten diegu erreferentzia hizkuntza handi esatean.

⁹ Lan hau egin den momentua Brexit-aren negoziaketak mahai gainean daude. Baina, gaur gaurkoz oraindik EBko kideztat joko dugu. Nahiz, ziurrenik, denbora laburrean Batasunetik kanpo egon.

Hori guztia esanda ere, gogorarazi nahiko genuke ez dela erraza izaten Europar Batasunean zenbat hizkuntza bizi diren zehaztea. Esan behar dugu, Europako hizkuntzen zerrenda egitean edota sailkatzean hainbat eredu agertzen zaizkigula. Ikus dezagun aipatutako guztia xehekiago jarraian.

Iturri batzuen arabera, Europar Batasunean 125 hizkuntzatik gora erabiltzen dira, horietako asko azken hamarkadetan izandako migrazio-mugimenduen ondorioz sartuak. Bertako berezko hizkuntza-komunitateei dagokienez, 60 inguru direla esan ohi da. 2004ko maiatzean Europar Batasunean sartu ziren Estatuak kontuan hartu gabe, 32 hizkuntza-komunitate gutxiagotu zegoela adierazi zuen Euromosaic azterketak berak (yiddish eta rom komunitateak kontuan hartu gabe). (Bilbao, 2006:106)

Esan gabe doa, Txepetxek (1987:225) berak esan zuela Europako estatuak estatu hedakorrak zirela. Hots, beren estatuak hedatzeko, beren hizkuntza ere hedakor bilakatzen dutenak. Esan genezake hizkuntza bat, berez, sortzez edo naturagatik ez dela hedakor. Baizik, haren hiztunek, edota hobe esanda, boterea dutenen hizkuntza hori bilakatzen dela estatuko hizkuntza, eta horrenbestez, estatu hedakor bat bada honakoa, hizkuntza hedakorra. Nahiz eta, onartu behar dugun, gaur egun gizarteak eleanitzagoak direla, oro har.

4.1. Europako hizkuntzak (gutxituak zein ez)

Atal hau jorratzeko, gai honi erreferentzia egiten dion euskarazko lanik garrantzitsuenetako bati heldu behar diogu, ezinbestean, Patxi Juaristiren 2006ko lana¹⁰.

Aurrez ere adierazi dugunez, EBn hizkuntza andana hitz egiten dira. Baina, badakigu hizkuntza horiek guztiak ez daudela maila, ez eta estatus berdinean. Atal honetan, berariaz Europar Batasunekoak diren hizkuntzei helduko diegu; hau da, atzerritarren hizkuntzak alde batera utziko ditugu. Honenbestez, jatorriz Europar Batasunekoak diren 60 hizkuntza hitz egiten dira gaur egun Europar Batasunean.

Atalaren izenburuak berak dioen moduan, 60 hizkuntza hauen artean badaude gutxitutako hizkuntzak, baina baita gutxituak ez direnak ere. Batzuk besteak baino egoera hobean daude; batzuk hitzun gutxi dituzte besteak milioika, batzuk ofizialak dira

¹⁰ Juaristiren lana, esan bezala, 2006koa da, orduetik hona 13 urte pasa dira. Urte hauetan, baliteke, gauzak aldatu izana. Eta hala bada, datuak eguneratzen saiatuko gara lan honetan.

besteak ez, batzuk desagertzeaz daude eta besteak ez. 60 hizkuntza hauek Europar Batasuneko 28 estatutan banatuta daude. Hurrengo zerrenda¹¹ honetan, Juaristiren (2006:5) hurrenkera bera jarraituz, alfabetikoki adieraziko dira:

1) Albaniera

Ia 6 milioi hiztun dituen hizkuntza da. Ofiziala da Albanian bertan eta Kosovon. Koofiziala da, berriz, Mazedonia iparraldean. Aitortutako hizkuntza gutxitua da Italian, Kroazian, Errumanian, Serbian eta Montenegron. Gutxiengo batek Grezian ere hitz egiten du, onarpenik gabe bada ere. Albaniak jasan izan duen emigrazioa medio, mundu osoko diasporan ia Europa hegoaldean baino hiztun gehiago ditu bertatik kanpo.

2) Alemana

Hizkuntza germaniar honek 132.176.520 hiztun ditu munduan. Honenbestez, munduko 10 hizkuntza mintzatuenen artean kokatzen da. Ofiziala da Europako hainbat herrialdetan, besteak beste, Alemanian, Austrian, Liechtensteinen, Suitzan eta Luxenburgon. Horiez gain, tokiko hizkuntza ofiziala da Italiako, Vatikanoko eta Poloniako lurralde batzuetan. Hala eta guztiz ere, alemaniar hiztun komunitateak Europako beste hainbat herrialdetan, zein mundu osoan aurki ditzakegu.

3) Aragoiera

30.000 hiztun inguru dituela kalkulatzeko adituek. Espainiako Aragoi komunitatean hitz egiten da nagusiki. Zehazki Huesca eta Zaragozako probintzietan. Aragoin berezko hizkuntza gisako ofizialtasuna du (Katalanak bezala), gaztelania izanik hizkuntza ofiziala. Arrisku mehatxupearan aurkitzen da.

4) Asturiera

550.000-560.000 hiztun inguru ditu, denak Espainian. Asturiera, Espainiako Asturias lurraldean hitz egiten den hizkuntza da. Babestutako hizkuntzatzat jotzen da, nahiz eta estatuko beste zenbait hizkuntzek bezala koofizialtasunik e duen.

5) Bielorrusiera

¹¹ Zerrendako hizkuntzei buruzko informazioa www.ethnologue.com webgunetik jaso da. Ik. Bibliografia.

3.843.110 hitzun dituen hizkuntza da. Gehienak Bielorrusian bertan, Polonian, Lituanian eta Ukrainian ere baditu hitzunak. Hiztun askok errusiera ere badakite. Urte luzez Errusiaren menpe egon izanak errusiera ere bertako hizkuntza ofizial izatea dakar. Nahiz eta 1994ko konstituzioaz geroztik bielorrusiera ere ofiziala izan.

6) Bretoiera

2013ko ikerketa baten arabera, 206.000 hitzun ditu, baina gainbeheran. Oro har; Frantziako Bretainia lurraldean hitz egiten da baita mugakide diren batzuetan ere. 1914. urtean bretoien %90ak bretoieraz hitz egiten zuen, 1945ean %75ak. Gaur egun, berriz, daturik baikorrenek %20ak hitz egiten duela diosagu. Frantziar estatuko hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Oso egoera kaskarrean kokatzen da bretoiera.

7) Bulgariara

8.144.880 hitzun ditu. Bulgariaz gain, beste herrialde batzuetan ere hitz egiten da. 1991ko konstituzioaz geroztik Bulgariako hizkuntza ofiziala da. Baita Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetako bat ere. Horrez gain, gutxitutako hizkuntza gisa onartuta dago ondorengo herrialdeetan: Txekiar Errepublika, Hungaria, Moldavia, Ukraina, Serbia, Albania eta Errumanian.

8) Daniera

5.632.990 hitzun ditu danierak. Hauetako gehienak Danimarkan, non hizkuntza ofiziala den. Hortik bereiz ere hitz egiten da Faroe uharteetan esaterako, bertan ere ofiziala da daniera. Groenlandian eta Alemaniako iparraldean (Schleswig-Holstein lurraldean) ere hitz egiten da, baina gutxitutako hizkuntza gisa dago onartuta.

9) Errumaniera

Errumaniera hizkuntza handia da, hain zuzen ere 24.345.750 hitzun baititu munduan barreiatuta. Gainera, 36.a da munduan hitzun dituzten hizkuntzen rankingean. EBko hizkuntza ofizialetako bat da. Errumaniera, Errumaniako hizkuntza ofiziala da. Hala eta guztiz ere, ez da ofizialtasuna duen lurralde bakarra. Moldavian ere hala da. Horrez gain, Bulgaria, Hungaria, Grezia, Ukraina, Serbia eta Italiako eremu batzuetan hitz egiten da, eta ondorioz gutxitutako hizkuntza gisa aitortuta dago bertan.

10) Errusiera

258.227.760 hiztun ditu errusierak datuen arabera. Ofiziala da Errusian. Baina beste makina bat lurraldetan ere bai, esaterako, beste bederatziztatutan da ofiziala. Besteak beste, lehenago esan dugun bezala, Bielorrusia. Eta tokiko hizkuntzatzat aitortuta dago beste hamaikatan.

11) Estoniera

Estoniako hizkuntza ofiziala izanik gehienbat Estonian hitz egiten den hizkuntza da estoniera. Estonian eta Estoniatik kanpo 1.164.770 hiztun ditu hizkuntza honek. Estoniatik kanpo, Suedian, Finlandian, AEBetan, Alemanian, Kanadan eta Errusian hitz egiten da.

12) Eskoziako gaelikoa¹²

60.130 hiztun ditu Eskoziako gaelikoak. Hauetako ia denak Eskozian (Erresuma Batua), baina oraindik gutxi batzuk Eskoziako gaelikoa hitz egiten omen dute Eskozia Berrian (Kanada). Arriskuan dagoen hizkuntza da, hiztunen galera gertatzen ari baita eta kalean ikusezina da. Horrez gain, Highlandsetik bidaltzearen legearen kalteak jasan zituen, legeak Eskoziako gaeliko-hiztunak sakabanatu baitzituen. 90eko hamarkadan Britainia Handiko konstituzioa garatu zen eta Eskoziari eskualde-autonomia bermatu zitzaion, baina baliteke beranduegi izatea Eskoziako gaelikoa suspertzeko, oso ahul geratu baita. (Bourhis, R. Y., & Landry, R., 2008).

13) Eslovakiera

Eslovakierak 7.227.240 hiztun ditu. 1992az geroztik Eslovakiako hizkuntza nazional bakarra da. Eslovakiatik kanpo eslovakiera hiztunak mundu osoan zehar topa ditzakegu.

14) Esloveniera

Hizkuntza eslaviar honek 2.226.650 hiztun ditu. Esloveniako hizkuntza ofiziala da eta bertako biztanle guztiek hitz egiten dute. Hala eta guztiz ere, inguruko lurraldeetan ere topa ditzakegu esloveniera hitz egiten dutenak.

15) Euskara

751.700 euskal hiztun omen gara Euskal Herrian. Euskararen ofizialtasunari dagokionez, lurraldearen arabera ezberdina da. EAEn gaztelaniarekin batera koofiziala da. Nafarroan, berriz, hiru eremutan dago banatuta eta horren

¹² Ez ditugu Eskoziako gaelikoa eta eskoziera nahasi behar. Eskoziako gaelikoa Eskozian hitz egiten den hizkuntza zeltari deitzen zaio. Eta, aldez, eskoziera Eskozian hitz egiten den ingelesaren aldaerari. Nahiz eta batzuk, hizkuntza beregaintzat dute azken hau.

arabera ofiziala da, edo hiztunen eskubideak ezberdinak dira. Frantziar estatuaren menpe dagoen Ipar Euskal Herrian, ordea, ez du inolako ofizialtasunik. Frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra. Hiztun asko izan arren, erabilera oso urria da. Horrenbestez, arriskuan dagoen hizkuntzatzat jo dezakegu.

16) Faroera

69.000 hiztun ditu faroerak. Faroe uharteetako hizkuntza ofiziala da danierarekin batera.

17) Finlandiera

Finlandiako hizkuntza ofiziala dugu finlandiera, 6.305.020 hiztunekin. Finlandieraz gain, suediera ere bada Finlandiako hizkuntza ofiziala.

18) Franko-proventzala

Franko-proventzala edo arpitanak 227.000 hiztun inguru dituela esaten da. Hiztun hauek Frantzian, Suitzan eta Italian daude (gune mugakidean), Arpitanian deritzon eremu geografikoan. Ofizialtasunik ez du Frantzian eta Suitzan, Frantsesak du bere lekua. Aldiz, Italiako Aosta inguruan tokiko hizkuntza aitortza du. Hala ere, oso egoera txarrean dago.

19) Frantsesa

Frantziako estatuko hizkuntzak 279.821.930 hiztun ditu mundu osoan barreiatuak. Gutxi ez balitz, mundu osoko 29 estatutan du modu bateko edo besteko ofizialtasuna. Munduko hizkuntza mintzatuenen zerrendako 8.a da.

20) Frisiera

Herbehereetako hizkuntza honek 845.100 hiztun ditu. Frisia lurraldean hizkuntza ofiziala den arren, herbehererak indar handia du. Hiru aldaera ditu eta aldaera bakoitzaren egoera oso ezberdina da. Mendebaldeko frisiera da egoerarik onenean aurkitzen dena.

21) Friuliera

Italiako eremu zehatz batean 300.000 lagunek hitz egiten duten hizkuntza da. Italiako estatuak babestutako hizkuntza dena arren, ez du inolako ofizialtasunik. Egoera kaskarrean kokatzen da.

22) Galesa

Britainia Handiko Galesko lurraldean ingelesa izanagatik hizkuntza ofiziala, galeserak eremu geografiko horretan badu ofizialtasunik. 573.050 hiztun ditu. Bere egoerari dagokionez, oraindik badute zer egitekorik hobetze bidean.

Galesari dagokionez, hizkuntza-gutxiengo horrek Britainia Handiko gobernuaren hizkuntza-politika asimilazionistak bizi izan ditu azken bi mendeetan. 90. hamarkadan konstituzio britainiarra garatu zuten eta Galesi eskualde-autonomia bermatu zitzaion. Horrek hizkuntza suspertzeko aukera berriak ekarri zituen. (Bourhis, R. Y., & Landry, R., 2008)

23) Galiziera

Espainiako ipar-mendebaldean hitz egiten dute 2.372.000 hiztunek. Galiziaz gain, lurralde mugakideetan ere mintzatzen da. Gaztelaniarekin batera da ofiziala Galizian. Hitzun asko izan arren, erabilera oso urria da. Eta azken urteetan beherakada nabarmena izaten ari da. Beraz, arriskuan dagoen hizkuntzatzat jo dezakegu.

24) Gaztelania

Gaztelaniak 534.335.730 hiztun ditu mundu osoan barreiaturik. Espainiako hizkuntza ofiziala da. Horrez gain, munduko beste hamarnaka tokitan ere bada ofiziala, adibide garbi gisa Erdialdeko eta Hego Amerika. Munduko hizkuntza mintzatuenen artean bigarrena da.

25) Greziera

13.170.460 hiztun ditu Greziako hizkuntzak. Greziaz gain, Txipren ere ofiziala da. Bertatik kanpo, mundu guztian zehar barreiatuta dauden hiztunek ere erabiltzen dute.

26) Hungariera

12.574.280 hiztun ditu hungarierak. Hungariako hizkuntza ofiziala izateaz gain, Serbiako Vojvodina probintzian ere ofiziala da. Ofiziala den lurraldeetatik at, herri mugakideetan ere erabiltzen da horietako batzuetan badu tokiko hizkuntza aitortzarik.

27) Ijitoera edo erromaniera

1,5 milioi hiztun ditu ijitoerak. Ez du inon onarpen ofizialik. Hitzun gehien Hungarian, Mazedonian eta Errumanian ditu. Nahiz eta, Europa guztian zehar badauden hizkuntza hau hitz egiten duten ijitoak. Historian zehar ijito komunitateak pairatu duen jazarpena dela eta (genozidioak barne) ijitoeraren hiztun asko galdu direla esan daiteke.

28) Irlandera

1.200.300 hiztun ditu. Irlandako jatorrizko hizkuntza izateaz gain, ofiziala ere bada ingelesarekin batera. Nahiz eta, bere egoera ez oso ona izan. Ingelesak du nagusitasuna Irlandan.

29) Italiara

55 milioi hiztun ditu. Horietako gehienak Italian, non hizkuntza ofiziala den. Bertatik kanpo ere topa ditzakegu italiar hiztunak.

30) Ingelesa

Mundu mailako lingua franca bilakatu den hizkuntza internazioala 500 milioi hiztun inguru ditu mundu guztian barreiaturik. Erresuma Batuko, AEBtako, Kanadako, Australiako eta beste 65 tokitako hizkuntza ofiziala da.

31) Katalana

10.050.000 hiztun ditu katalanak¹³. Espainiako komunitatean gaztelaniarekin batera da ofiziala zenbait komunitatetan. Andorrako hizkuntza ofiziala da. Eta Frantzia hitz egiten den lurraldean frantsesak du ofizialtasun bakarra.

32) Kroaziera

5.609.290 hiztun ditu kroazierak. Kroazian bertan ofiziala da. Europako beste estatu batzuetan, berriz, koofizialtasuna du: Bosnia-Herzegovina, Serbia, Austria, Montenegro.

33) Korsikera

200.000 hiztun inguru ditu korsikerak. Frantziar estatuaren menpeko lurraldean dagoenez, ez du inolako ofizialtasunik. Frantsesa baita bertako hizkuntza ofizial bakarra.

34) Kashubiera

Poloniako lurraldean hitz egiten den gutxitutako hizkuntza honek 108.000 hiztun ditu. Hitz egiten den lurraldean tokiko hizkuntza aitortza jasotzen du.

35) Kareliera

Kareliera Errusiako Karelia lurraldean eta Finlandiako eremu batean hitz egiten da. Ez du inolako onarpen ofizialik. Hiztunei dagokionez, 60.800 izan daitezke.

36) Ladinera

Italiako Dolomita mendietan hitz egiten da Ladin lurraldean, 40.000 hiztun inguru ditu. Ez du inolako onarpen ofizialik.

¹³ Kasu honetan, 2018ko Plataforma per la llengua *InformeCAT 2018 - 50 dades sobre la llengua catalana* lanetik atera dugu informazioa.

37) Letoniera

Letoniako hizkuntza ofiziala da eta 1.752.260 hiztun ditu.

38) Lituania

Lituaniako hizkuntza ofiziala den hizkuntza honek 3 milioi hiztun inguru ditu.

39) Luxenburgera

400.000 hiztun inguru ditu Luxenburgoko hizkuntzak. Frantsesarekin eta alemanarekin batera da ofiziala.

40) Manxeko gaelera

Man uharteetan hitz egiten da, Erresuma Batuan. Lehen hizkuntzatzat manxera zuen azken hiztuna 1974an hil zen. Bigarren hizkuntza moduan zuten hiztunak geratu ziren. Gaur egun, hizkuntza biziberritzeko lanetan ari dira. Ethnologuen arabera, 1.600 hiztun inguru zituen 2011n.

41) Mazedoniera

Mazedoniako hizkuntza ofizialak 1.620.290 hiztun ditu.

42) Maltera

Ingelesarekin batera da Maltako hizkuntza ofiziala. 520.000 hiztun inguru ditu.

43) Meänkieli

60.000 hiztun inguru ditu. Suediako iparraldean hitz egiten da. Maiz finlandieraren aldaeratzat jo izan bada ere, 2000. urtean hizkuntza beregain gisa onartu zen. Gutxietsia izan da urte luzez. Horrek erabileraren gainbehera ekarri du, dagoeneko gazte askoren ama hizkuntza suediera da.

44) Mirandera

15.000 hiztun inguru ditu. Iberiar penintsulako ipar mendebaldean hitz egiten den hizkuntza da. Portugalgo Trás-os-Montes e Alto Douro lurraldean koofiziala da.

45) Nederlandera

Herbehereetako Erresumako hizkuntza ofizialak 22.040.690 hiztun ditu mundu osoan zehar. Herbehereen koloniak izandako lurraldeetan ere bada ofizial eta baita Belgikan ere.

46) Okzitaniera

218.310 hiztun ditu okzitanierak. Hizkuntza hau Frantziako hegoaldean hitz egiten da, eta baita Espainiako zati den Aran haranean ere; non katalanarekin

eta gaztelaniarekin batera ofiziala baiten. Gainerakoan, egoera kaskarrean dagoela diote adituek.

47) Poloniera

Poloniako hizkuntza ofizialak 40.378.030 hiztun ditu. Poloniak bere historian bizi izandako emigrazioa dela eta munduan zehar ere hainbat hizkuntza-komunitate ditu.

48) Portugesa

236.512.000 hiztun ditu mundu osoan zehar. Besteak beste, 9 herrialdetako hizkuntza ofiziala da. Eta horrenbestez, munduko 5. hizkuntza mintzatuen da.

49) Rusynera

623.500 hiztun ditu rusynerak. Adituen artean ez daude ados hizkuntza beregaina edo ukraineraren dialektoa den. Hitztunek, ordea, ukraineratik bereizi eta hizkuntza dela aldarrikatzen dute. Eslovakian, Kroazian, Serbian eta Ukrainan hitz egiten da.

50) Samia

20.000-30.000 hiztun ditu. Samiak Laponian bizi dira, Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiako lurraldeetan, Eskandinavian. Norvegian ofizialtasunik badu ere, Suedian eta Finlandian tokiko hizkuntza moduan dago aitortuta.

51) Sardiniera

Italiako Sardinia irlan hitz egiten den hizkuntza honek 1.200.000 hiztun ditu. Sardiniako hizkuntza ofiziala da italierarekin batera.

52) Sorbiera

20.000-30.000 hiztun artean ditu sorbierak. Bi aldaera oso bereizi ditu. Alemaniako Saxonia eta Brandenburgoko estatuetan ofizialki aitortuak eta gutxitutako hizkuntza gisa onartua da.

53) Suediera

12.804.900 hiztun ditu Suedieko hizkuntza ofizialak. Suediatik aparte, Finlandian ere baditu hiztunak, eta urte luzez Finlandiako goi-mailako eliteen hizkuntza izan da. Ondorioz, gaur egun ere Finlandian ofiziala da.

54) Tatarera

5.009.510 hiztun ditu. Europako mugez gaindi Asia aldean ere hitz egiten da. Baina, hala ere, Errusiako Tatarstanen baizik ez da ofiziala.

55) Turkiera

79.779.360 hiztun ditu turkierak. Turkian eta Txipren da ofiziala. Bertatik aparte, mundu osoan zehar hitz egiten da.

56) Txekiera

13.386.850 hiztun ditu Txekiar Errepublikako hizkuntza ofizialak.

57) Ukrainera

Ukrainiako hizkuntza ofiziala da, 33.082.790 hiztunekin. Hiztun hauek Ukraina inguruko lurraldeetan ere aurki daitezke.

58) Yiddisha

Ethnologuen arabera, Yiddishak oso egoera ezberdina bizi du lurralde ezberdinetan. Ekialdeko yiddisha (Israelgo hizkuntza) 1,5 milioi pertsonak hitz egiten dute. Aldiz, mendebaldeko yiddishak, Europan zehar barreiatuak dauden juduek hitz egiten dutena, 50.000 hiztun ditu. Azken hau egoera oso txarrean aurkitzen da.

Ia desagertuta dauden beste hiru hizkuntza gehitu behar zaizkio zerrenda honi:

59) Karaimera

Hilzorian aurkitzen da Lituaniako hizkuntza hau. Badirudi, Lituanian bertan 74 hiztun geratzen direla, eta herrialdetik kanpo daudenekin 80 inguru.

60) Kornubiera

600 hiztun inguru dituela kalkulatzeko adituek, nahiz eta gehiago diren ulertzen dutenak (2000 inguru). Erresuma Batuko Kornualles lurmuturrean hitz egiten den hizkuntza da. 1777an galdu omen zen hizkuntza, bere azken hiztuna hildakoan eta ingelesak hartu zuen bere lekua. XX. mendean zehar, ordea, ahaleginak eta bi egin zituzten hizkuntza berreskuratzeko. Nolabaiteko suspertzea izan duen arren, etorkizun zaila du kornubierak.

61) Livoniera

Livoniera ama-hizkuntzatzat zuen azken hiztuna 2013an hil zen. Hala ere, 200 bat hiztun geratzen dira, bigarren hizkuntza gisa livoniera darabiltenak. Letoniako hizkuntza hau desagertzeko arriskuan dago.

Munduko hizkuntzen egoera aipatu dugunean, esan dugu gaur egun munduan 5.000-6.000 hizkuntza hitz egiten direla. Hala bada, zifra horren aldean EBko 60 hizkuntzak

huseria bat direla. Munduko populazioaren %7 bizi den “aniztasunaren Europan”¹⁴ munduko hizkuntzen aniztasunaren %1 besterik ez dugula.

4.1.1. Aurrez / Dagoeneko desagertutako hizkuntzak¹⁵

Alta, dagoeneko esan dugun bezala, bertako hizkuntza hedakorrak eta politikak direla medio, aurrez bertan mintzo ziren hainbat hizkuntza ere dagoeneko desagertu dira.

- **Kemi Sámia**

Finlandia inguruan hitz egiten zen Sami familiako hizkuntza hau XX. mendean galdu zen. Testu gutxi batzuk besterik ez dira gordetzen.

- **Hego Mansiera**

Errusiako Tavda hiriaren inguruan hitz egiten zen hizkuntza zen.

- **Polabera**

Alemaniko ipar-ekialdean hitz egiten zen hizkuntza da. Dirudienez, 1750. urtearen bueltan desagertu zen.

- **Eslovinkoa**

Pomeranian, gaur egungo Poloniako lurraldean, hitz egiten zen hizkuntza hau. Badirudi, XX. mendean, 1900 inguruan desagertu zela.

- **Prusiera zaharra**

Salminemen arabera, XIII. mendean Baltikoko kostan hitz egiten zen, XVI. mendean dagoeneko beren lurraldea Prusiara murriztu zen. Eta XVII. menderako desagertu zen.

- **Nornera**

Shetland uharteetan 1880 urtearen inguruan galdu zen hizkuntza hau. Ziurrenik, Orkney uhartean eta Eskozian ere hitz egingo zen lehenago.

- **Gotikoa**

Azken hiztuna Krimean izan zen, Ukrainian. XVIII. mendean galdu zen. Eta zantzuak daude Europa ekialdeko lurralde gehiagotan ere hitz egingo zela lehenago.

¹⁴ Hizkuntza-aniztasuna izan da, zalantza barik, Europako batasunaren ezaugarri nagusietako bat eta aniztasuna bera erabili izan du ikurritzean: Aniztasunean bildurik. (Bilbao:2010).

¹⁵ Informazio honen iturburua honakoa da: Salminen, T. (2007). Endangered languages in Europe. *Language diversity endangered*, 205-232.

- **Mozarabiera**

Espainiako hegoaldean hitz egiten zen, arabiarrek bertan bizi izan ziren bitartean. Aro Modernoan desagertu zela kalkulatu da.

- **Shuadit edo judu-probentzera**

XX. mende amaiera arte Frantziako hegoaldean hitz egiten zen judu-erromantzea izan zen. Hiztun horietako asko II. Mundu Gerran nazien eskuetan hil ziren.

- **Zarfatikoa edo judu-frantsesa**

Frantziako iparraldeko juduek, eta ziurrenik Herbehereetako eta Alemaniako lurralde batzuetan, hitz egiten zuten hizkuntza zen. Aurrekoa bezala, hizkuntza hau ere II. Mundu Gerran txikitu zuten.

- **Dalmaziera**

Kroazian hitz egiten zen hizkuntza hau, Adriatikoko kostan. 1898an hil zen azken hiztuna, Tuone Udaina.

4.2. Hizkuntza ofizialak

Hurrengo atal honetan Europar Batasuneko hizkuntza ofizialez mintzatuko gara. Batetik, EBn funtzionamenduan ofizial diren hizkuntzak ditugu. Eta bestetik, berriz, EBko estatuetan ofizialak diren hizkuntzak ditugu.

Europar Batasuneko eguneroko funtzionamenduan 24 hizkuntza dira ofizial. Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta erakundeko lanetarako hizkuntzak 24 hauek dira: alemana, bulgariera, daniera, eslovakiera, esloveniera, gaztelania, ingelesa, errumaniera, estoniera, finlandiera, frantsesa, greziera, hungariera, irlandera, italiara, kroaziera, letoniera, lituaniera, maltera, nederlandera, poloniera, portugesa, suediera eta txekiera. Dokumentu garrantzitsuak, hala nola lege testuak, hizkuntza ofizial horietako bakoitzera itzultzen dira.

Horiez gain, bost hizkuntzok nolabait erdi ofizialak dira: Eskoziako gaelikoa, euskara, galesa, galiziera eta katalana. Europar Batasuneko itunen itzulpen ofizialak egiten dira hizkuntza horietara, eta Europar Batasuneko herritarrek Batasuneko erakundeekiko korrespondentzia hizkuntza horietan izateko eskubidea dute. Hala eta guztiz ere, badira Europar Batasuneko hizkuntza izanagatik inolako ofizialtasunik ez duten beste hizkuntza batzuk. (Juaristi, 2006)

Batasuneko 28 estatuetan, barneko hizkuntzen ofizialtasuna kudeatzeko modu ezberdinak daude. Estatu bakoitzak bere modura sailkatzen ditu lurralde barruko hizkuntzak. Europako konstituzioei erreparaturik hizkuntzei esleitzen zaizkien kategoria ezberdinak ditugu jarraian (Bilbao, 2018-19: 24):

- Hizkuntza ofiziala
- Estatu hizkuntza
- Hizkuntza nazionala
- Errepublikako hizkuntza
- Hizkuntza nagusia
- Berezko hizkuntza
- Hizkuntza parekatua
- Etnien arteko harreman hizkuntza
- Bertako populazioaren hizkuntza

Estatuek aniztasuna kudeatzeko bost eredu proposatzen dituzte Juaristik (2006:909, 2016:380) eta Bilbaok (2010:154). Hona hemen zerrenda¹⁶:

- 1. Konstituzioan hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak:** Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia
- 2. Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak, baina estatuaren zenbait zonalde edota eskualdetan beste hizkuntzen bat edo batzuk onartzen dituztenak:** Suedia, Eslovenia, Hungaria, Portugal, Txekiar Errepublika, Britainia Handia, Austria eta Alemania.
- 3. Zonalde edota eskualde batzuetan hizkuntza koofizialak onartzen dituzten estatuak:** Espainia, Danimarka, Herbehereak eta Italia.
- 4. Hizkuntza federazioak:** Belgika. Hiztunek ez dituzte ofizialak diren hizkuntza guztiak (frantsesa, nederlandera eta alemanera) ikasten, bakarrik bizi diren eremuko hizkuntza ofiziala, hiru hizkuntzok estatuko lurraldearen zati batean baino ez direlako ofizialak.
- 5. Estatu eleaniztunak:** Finlandia, Irlanda, Luxenburgo, Txipre eta Malta. Kasu honetan, hizkuntza guztiak dira ofizialak eta hiztunak hizkuntza ofizial guztiak ikastera behartuta daude.

¹⁶ Bost eredu en banakako azalpena Juaristiren 2006ko lanen oinarritzen da.

Bost eredu hauetatik hizkuntza gutxituak gehien errespetatzen dituen esan genezake estatu eleaniztunena dela. Dena dela, hauetan ere hizkuntza batek izaten dituelako besteek baino funtzio edota erabilera-eremu gehiago. Hau da, estatu eleaniztunetan ere, gizarte elebitasun orekatua lortzea ezinezkoa da. (Juaristi, 2016:380).

Hurrengo lerroetan bost eredu hauetako bakoitza banan bana azaltzen saiatuko gara. Horretarako, Juaristiren 2006ko lana (909-913. or) jarraituko dugu.

1. Konstituzioan hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak:

Horrelako zazpi estatu ditugu Europar Batasunean. Gertutasunagatik, ziurrenik, adibiderik ezagunena Frantziarena izango dugu. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar beste sei estatuak honen eredu berari jarraitzen diotela.

Estatu hauen hizkuntza politikaren oinarria ideologikoa da. Funtsean, estatuaren kohesioa eta garapena hizkuntza bakarra izatearen ideiarekin lotzen baitute. Hots, estatu hauetan modernitatea = hizkuntza bat = nazioa = estatua lotzen dituzte. Horrelako politikek eragiten dute horrelako estatuetan hitz egiten diren hizkuntza gutxituak prestigioa galtzea eta azkenean desagertzea.

Horrez gain, estatu hauen hizkuntza politikek hizkuntza eredu elebakarrak bultzatzen dituzte, hizkuntza gutxituen kaltetan.

2. Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak, baina estatuaren zenbait zonalde edota eskualdetan beste hizkuntzen bat edo batzuk onartzen dituztenak:

Bederatzi estatu ditugu modu honetara funtzionatzen dutenak Europar Batasunean. Horietako batzuen kasua ikusiko dugu jarraian. Suediaren kasuan, samia, meänkielia, finlandiera, ijitoera eta yiddisha daude onartuta gutxitutako hizkuntza gisa. Esloveniako Istriako zenbait herritan italiara koofiziala da. Portugal dagokionez, portugezaz gain mirandera ere bada ofiziala Miranda do Douro herrian eta inguruan. Erresuma Batuan, galesak, Eskoziako gaelikoak, kornishak eta irlandera dituzte.

Esan beharra dago, hala ere, hizkuntza hauen egoera nahiko kaskarra dela. Nahiz eta gobernuen babesa eta zenbait kasutan laguntza ekonomikoa duten, egoera honetan dauden hizkuntza gutxitu askok komeriak dituzte, besteak beste, ofizialtasunik ez dutelako.

3. Zonalde edota eskualde batzuetan hizkuntza koofizialak onartzen dituzten estatuak:

Batasuneko lau estatu hizkuntza ofizial bakarra dute, baina estatuko eremu batzuetan ofizialaz gain maila berean egongo den bertako hizkuntza ofiziala onartzen da. Hau da, hizkuntza koofiziala. Hala nola, katalana, galiziera, euskara, faroeera, galesa, sardiniera, friuliera edo ladinera hizkuntza koofizialak dira estatuaren zonalde batzuetan.

Gutxitutako hizkuntza bat sendotzeko pauso bat izan daiteke ofizialtasuna. Baina, argi izan behar dugu honek ez duela hizkuntzaren biziraupena bermatzen. Ez dezagun ahaztu euskararen kasua, EAEn ofiziala izan arren ez du etorkizun argirik.

Danimarkako zenbait tokitan frisia hizkuntza koofiziala da. Hala eta guztiz ere, desagertzeko arrisku handienetarikoa duen Batasuneko hizkuntzetariko bat da (Fishman, 1991 in Juaristi, 2006).

Alabaina, esan beharra dago estatu hauek beren lurraldearen barruan dauden hizkuntza batzuei aitortzen dietela ofizialtasuna, baina aldi berean beste batzuei ez. Besteak beste, euskara, katalana, okzitania eta galiziera ofizialak dira Espainian, baina besteak beste, asturiera ez da ofiziala.

4. Hizkuntza federazioak

Belgika da Batasuneko hizkuntza federazio bakarra. Belgikan hiru hizkuntza dira ofizial: alemana, frantsesa eta nederlandera. Hiru erregiotan dago banatua estatua. Bruselan frantsesa eta alemana hitz egiten dira, Balonian frantsesez eta flandestarrak bizi diren lurraldean nederlandez.

Hiru hizkuntzak dira ofizialak, baina horrek ez du esan nahi soziolinguistikoki egoera berean daudenik hirurak.

5. Estatu eleaniztunak

Bost dira Batasuneko estatu eleaniztunak: Finlandia, non finlandiera eta suediera hizkuntza ofizialak diren; Irlanda, non ingelesak eta irlandera babes ofiziala duten; Luxenburgo, non frantsesa, alemana eta luxenburgera ofizialak diren; Txipre, non

greziera eta turkiera hitz egiten diren; eta Malta, non ingelesa eta maltera konstituzioan onartuak dauden.

Estatu hauetako konstituzioetan (Txipre salbu, egoera politiko berezia¹⁷ dela eta) hizkuntza ofizial bat baino gehiago ageri dira. Hala ere, konstituzioan agertzen diren hizkuntza ofizialek e dute bermatzen erabilera bera izango dutenik.

4.3. Immigrazioa medio Europan hitz egiten diren hizkuntzak

Munduko makina bat txokotatik hurbiltzen da jendea gurera, arrazoiak arrazoi. Horietako askok eta askok, gainera, berekin dakarte beren jatorrizko lurraldeko hizkuntza, edota hizkuntzak. Egunero iristen zaizkigu: hizkuntza handiak zein txikiak, beren lurraldean ofizialak zein arrisku egoeran daudenak, hiztun asko dituztenak zein gutxi dituztenak

Juaristik (2018-19) lanean aipatzen duenez, zenbait iturriren arabera, 125 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira Europar Batasunean.

Haarmannen 2011ko lanari erreparatuz gero, berriz, «europar berrien» hizkuntzak 250 inguru izatera iris daitezkeela dio. Hau da, jatorrizko Europako hizkuntzak baino askoz ere gehiago. Hizkuntza hauen banaketari dagokionean, ez da uniformea. Dirudienez, Europako mendebaldetik ekialdera dibertsitatea gutxiagotuz doa. Hau da, Europa mendebaldean hizkuntza atzerritar gehiago hitz egiten da ekialdean baino.

Haarmannek gehitzen duenez, 1980-90 urteetatik aurrera gero eta atzerritar gehiago etortzen dira Europa. Eta azken urteetan masiboki, gainera. Honek, ziur aski, Europako hizkuntza paisaia aldatu egingo du. Bitxia bada ere, kolonizazio garaian kontaktuan egondako hizkuntza asko, gaur egun Europan daude berriro ere kontaktuan.

Juaristik ere (2018-19) dio azken urteotan asko aldatu dela EBeko populazioaren bilakaera eta osaketa. Etorkinen kopurua handitzen joan da Batasunean, eta, ondorioz, 90. hamarkadaren hasieratik, etorkinak dira Batasuneko biztanleriaren hazkundearen

¹⁷ Txipre irla bitan zatiturik dago administratiboki. Irlaren iparraldeko erdia turkiarren esku dago eta hegoaldeko erdia greziarren esku. Turkiarren gunean beren lehendakaria, legebiltzarra eta epaitegia dute. Horrenbestez, greziera eta turkiera dira hizkuntza ofizialak.

arrazoi garrantzitsuena. Honek zera esan nahi du: hizkuntza asko daudela Batasunean inolako onarpenik ez dutenak, nahiz eta hiztun ugari izan.

Haarmannek, lan horretan bertan, aurreikusten du egoera honek pidgin berriak sor ditzakeela. Eta balitekeela, dagoeneko, gertatzen hasia izatea. Adibide gisa, frantsesarekin Parisko eta Bruselasko konurbazioetan; edota ingelesarekin Erresuma Batuko hiri industrialetan; alemanarekin hiri handienetan ... Bukatzeko, Haarmanek Europa agertoki soziolinguistiko berri baten aurrean dagoela dio.

Hori guztiori esanda, Extra eta Gourterren (2007:27) lanari jarraiki, atzerritarren datuetara jo behar genuke. Kontuan izan behar dugu datu hauetan azalduko zaizkigun atzerritarrak paperak dituztenak izango direla. Jakin badakigu ere, makina bat atzerritar baditugula gure inguruan horiek gabe. Datu hauetan beren jatorrizko hizkuntza zein den ez zaigu azalduko.

Erresuma Batuan, esaterako, bereber familiako hizkuntza hitz egiten duten 500.000 hiztun, eta Tunisiako arabiera hitz egiten duten 200.000 hiztun. (Juaristi, 2018-19: 16). Frantzia, adibidez, Algeriako arabiera hitz egiten duten 600.000 hiztun daude, kabylea (Algeriako Bereber familiako hizkuntza) hitz egiten duten 500.000 hiztun, eta Tunisiako arabiera hitz egiten duten 200.000 hiztun. (Juaristi, 2018-19: 16)

4.4. Gutxitutako hizkuntzak

Dagoeneko hitz egin dugu 2.1. atalean hizkuntza gutxitua zer den azaldu nahian. Hala eta guztiz ere, atal honetan Henri Giordanen (1993, 113-114) hitzak ekarri nahi genituzke.

“Hizkuntza "gutxituak": inon ere ez, ez Europan ez beste edonon, bere esparruko gizartean egoera nagusirik ezagutzen ez duten hizkuntzak dira. Hizkuntza ofizial estatusa dutenak badira (Irlandera edo Kataluniera) edo nazionala (Erromantxea Suitzan), baina egoera nagusian ez daudenak. Ez badira kontutan hartzen etorkinek osatutako biztanle taldeak, 17 dira Europa Mendebaldean eta Hegoaldean mota honetako hizkuntzak: Euskara, Kataluniera, Okzitaniera, Sorabiera, Frisiera, Gaeliera, Bretoiera, Kernewekera, Eskoziako gaelikoa, Irlandera, Yiddishera, Judu-espainiera eta Erromaniera”.

4.4.1. Hizkuntza gutxituen egoera

Aurrez, Europako hizkuntzen zerrenda luzea egin dugu. Bertan, Europan jatorria duten hizkuntzak agertu ditugu. Hau da, ofizialak izan edo gutxituak izan ez ditugu bereizi. Eta horrez gain, Europatik kanpokoak izanik ere gaur egun Europan hitz egiten diren hizkuntzak beste zerrenda batean aipatu ditugu.

Honako atal honetan, hasierako 60ko zerrenda horretatik abiatuz, horien artetik hizkuntza gutxituak zein diren zerrendatzen saiatu gara:

1. Aragoiera (30.000 hiztun)
2. Asturiera (550.000-560.000 hiztun)
3. Bielorrusiera (3.843.110 hiztun)
4. Bretoiera (206.000 hiztun)
5. Eskoziako gaelikoa (60.130 hiztun)
6. Euskara (751.700 hiztun)
7. Faroera (69.000 hiztun)
8. Franko-proventzala (227.000 hiztun)
9. Frisiera (845.100 hiztun)
10. Friuliera (300.000 hiztun)
11. Galesera (573.050 hiztun)
12. Galiziera (2.372.000 hiztun)
13. Ijitoera (1.5000.000 hiztun)
14. Irlandera (1.200.300 hiztun)
15. Karaimera (74 hiztun)
16. Kareliera (60.800 hiztun)
17. Kashubiera (108.000 hiztun)
18. Katalana (10.050.000 hiztun)
19. Kornubiera (600 hiztun)
20. Korsikera (200.000 hiztun)
21. Ladinera (40.000 hiztun)
22. Livoniera (200 hiztun inguru)
23. Meänkieli (60.000 hiztun)
24. Mirandera (15.000 hiztun)
25. Okzitaniera (218.310 hiztun)

26. Rusynera (623.500 hiztun)
27. Samia (20.000-30.000 hiztun)
28. Sardiniera (1.200.000)
29. Sorbiera (20.000-30.000 hiztun)
30. Tatarera (5.009.510 hiztun)
31. Yiddisha (50.000 hiztun)

Aurrez ere aitatu dugunez, Europako hizkuntzak 60 dira, oraintxe erakutsitako zerrenda horretan 31 hizkuntza ditugu. Hau da, Europako hizkuntzen %51,16 gutxitutako hizkuntzak dira. Aldiz, hizkuntza hauek populazio osoaren %0,8k bakarrik mintzo ditu. Gutxi gora behera, Europar Batasunean bizi garen 513 milioi pertsonatik 4 milioik hitz egiten dituzte 31 hizkuntza gutxitu horiek.

Zerrenda honetan kontuan hartu behar dugu, hizkuntza batzuk gutxitu direla milioi bat hiztun izanagatik ere, onarpenik ez dutelako. Bestalde, milioi hiztun baino gutxiago dituzten zenbait hizkuntza ez dira gutxitutako hizkuntzatzat hartuko egoera soziolinguistiko ona eta onarpena ofiziala badutelako.

4.4.2. Arrisku mailen arabera sailkapena

Aurreko zerrenda oinarritzat hartuta, jarraian zerrenda horretako hizkuntzak UNESCO etxearen arrisku mailen arabera sailkapenaren arabera sailkatzen saiatuko gara. Horrez gain, Juaristik (2018-19:25) dakarkigun Wurm-en (2001) proposamena re baliatuko dugu. Wurmek kontinentez kontinente bost multzotan bereizten ditu arriskuan dauden edo egon litezkeen hizkuntzak. Ikus dezagun nola irudikatzen duen egoera Europan. Beraz, zerrenda honetan arrisku egoeraren batean dauden hizkuntzak izango ditugu. Hortaz, salbu dauden hizkuntzarik ez duzu izango, ezta dagoeneko desagertutakorik.

- **Salbu ez dauden hizkuntzak (*Vulnerable*):**
Bielorrusiera, katalana, faroera eta tatarera.
- **Arriskuan dauden hizkuntzak (*Definetely endangered*):**
Aragoiera, asturiera, Espainia aldeko euskara, Eskoziako gaelikoa, franko-proventzala, mendebaleko frisia, friuliera, galesera, galiziera, ijitoera, irlandera, kareliera, korsikera, ladinera, meänkieli, mirandera, rusynera, sorbiera, sardiniera, iparraldeko samiera eta yiddisha.

- **Guztiz arriskuan dauden hizkuntzak (*Severely endangered*):**
Frantzia aldeko euskara, bretoiera, ekialdeko frisiera, ijitoera, karaimera, kashubiera, okzitaniera, samiera.
- **Desagertzeko zorian dauden hizkuntzak (*Critically endangered*):**
kornubiera, livoniera eta samieraren zenbait aldaera.

4.5. Zein dira Europar hizkuntzak arriskuan egotearen arrazoiak? Historia pixka bat

Campbell eta Belew-ren 2018ko *Cataloguing the world's endangered languages* liburuko Bryan Hauk-en *Causes of language endangerment in Europe* atala erabiliko da zati hau egiteko.

Hauken (2018) arabera, esan daiteke Europar hizkuntza gutxituak egoteko eta hauen arriskua larria izateko arrazoi nagusienetako bat hizkuntza-politika bera dela. Nahiz eta, horrez gain, populazio mugimenduak eta arrazoi pragmatiko zein ekonomikoak ere aipatzen dituen.

Oinarri-oinarrian, Europako leku ezberdinetan eta garai ezberdinetan oso zabaldua dagoen eta egon den ideia (kaltegarri) bat dago: nazio bat = hizkuntza bat. Haarmanek dioenez, ideia hau Erdi Aroan hasi zen errotzen. Honek berarekin batera dakar nazioko edo estatuko gainerako hizkuntzak gutxiestea eta modu batera edo bestera deuseztatzea. Esate baterako, hor dugu Errusiaren eta Krimearen (Ukrainia) kasua. 2014an Errusiak Ukrainiako Krimea lurraldea kontrolpean hartu zuen hizkuntza arrazoiak medio, besteak beste. Bere argudioetako bat Krimean errusiar hiztun gehiago zeudela ukrainar hiztunak baino zen. Gainera, honek ez ditu kontuan hartzen inondik inora Krimean dauden hizkuntza gutxituak, hala nola, krymchaka, karaima edota krimear tatara, ukrainar hiztunak ahaztu gabe.

Erdi Arotik zetorren ideia bera defendatzen zuten 1789ko Frantziako Iraultzan (Haarmann:2011). Frantziar estatu bat, frantses hizkuntza ofiziala izango zuena. Bretoiera, euskara, okzitaniera eta alemana (Alsazian) hitz egiten zutenek ez zuketen boto eskubiderik. Honen ostean, ilustrazio garaian, nazioen loraldia etorri zen. Eta sortzen zen nazio orok, nazio hizkuntza bat aldarrikatzen zuen.

Hizkuntza politika eta bakarraren ideologiak indar edo eragin handia badu ere hizkuntza txikietan, kasu batzuetan interes ekonomikoek eta nazioarteko interes propioek ere badute eragina. Horrekin, dakar Europan kokatzen direla hizkuntza kolonial tradizionalak: ingelesa, frantsesa, alemana, errusiera, portugesa eta gaztelania.

Haarmannek arrazoi horiei guztiei erlijioarena gehitzen die. Modu ezberdinetan eragin izan du erlijioak Europako hizkuntzetan. Alde batetik, Gaztelako erreinuak gaztelania hizkuntzaz baliatu zuen mairuak bertatik kanporatu nahi izan zituenean. Hizkuntza politika honek Iberiar penintsulako gainerako hizkuntzen beherakada ekarri zuen. Aldi berean, judu sefardien aurkako jazarpenak hauen hizkuntzaren jaitsieran eragin zuen.

Gaiak luzerako joko balu ere, Gaztelako erreinua aipatu dugula aprobetxatuz, momentu hartan bertan, aipatu beharra dugu gertaera historiko garrantzitsu baten protagonista izan zela. XV. mendean Amerikaren konkistari ekin zioten, gaztelania hizkuntzaren zabalkundea eta inposaketa izan ziren bertako hizkuntzen kaltetan.

Era berean, XVI. mendearen bueltan erlijio gerrak izan ziren, kristau katoliko eta protestanteen artean. Erlijio gerra horien atzean, hizkuntzari dagokionez, eta zehazki hizkuntza gutxituei, protestanteek itun berria bertako hizkuntzetan egitea babesten zuten. Katolikoek, ordea, latinez. Beraz, historiako momentu honetan hainbat testu agertzen hasten dira hizkuntza gutxituetan. Urrutira jo gabe, euskarazkoa 1571n argitaratu zuen Joanes Leizarragak.

Horrenbestez, lehentxeago aipatutako “nazio bat = hizkuntza bat” ideia aspalditik badator ere, mendeetan errotu da gure artean. Estatu independenteak sortzerakoan ere jarrera hau izan baitute. Besteak beste, Haukek herrialde Baltikoak (Estonia, Letonia eta Lituania) dakarzkigu gogora. Sobietar Batasunaren menpe egotetik estatu independente izatera pasatzerako orduan, errusiera baztertu eta bertako hizkuntza jarri baitute ofizial, baina hizkuntza ofizial bakarra: estoniera Estonian, letoniera Letonian eta lituaniera Lituanian. Beren estatuen barnean hizkuntza gehiago hitz egiten direla ahantziz, konparazio batera: voro, livoniera edota karaimera.

Azken urteetan badirudi entitateak beren jarrera aldatzen ari direla. Nahiz eta, batzuetan aurpegi zuriketa bat besterik ez dela dirudien, edota beranduegi egin ote diren.

4.5.1. Faktoreak

Oraintxe jorratutako atalean Europan izandako makina bat gertaera azaldu ditugun arren, hurrengo atal honetan 3.2. ataleko arrazoiak edo arazoak¹⁸ ekarriko ditugu eta Europako testuinguruan azalduko ditugu.

1. Arazo politiko eta militarrek

Batasuna osatzen duten estatu askok diskriminazio politikoak, giza eskubideen bortxaketak, indarrez egindako elkarteen lekualdatzeak eta muga administratiboan erabilera interesatuak bultzatu dituzte mendeetan. Horrek eragin du batetik, hiztun komunitate asko baztertu eta gutxiestea. Eta bestetik, berriz, komunitate hauek estatu ezberdinen artean banatuta egotea.

Lehenengo adibidea, guretzat gertukoena, euskararena dugu. Euskal Herria, euskal hiztunok, hiru lurralde administratibotan banaturik baikaude. Hizkuntza politika eta estatus ezberdinak ditugu. Honek, besteak beste, euskaldunon herri kontzientzian eragiten du, galdu egiten baita. Eta horrenbestez, hiztun komunitatea ere murrizten du.

Jo dezagun jarraian Eskoziara. 1707an Eskoziako erresuma Ingalaterrakoarekin batu zen, eta ondorioz, burujabetza politikoa galdu zuen. Honek berriro ere, hizkuntzaren ahultzea ekarri zuen. Eta gaur da eguna, oraindik orain, Eskoziako gaelikoa arriskuan dagoen hizkuntza bezala katalogatuta dagoena.

Laponiara mugituko gara segidan, samien kasua behatzera. Samiak Suedia, Norvegia, Finlandia eta Errusiako lurretan banatuta daude administratiboki. Lau lurraldetan banatuta egoteak eta lurralde hauetako estatuen zapalkuntza: urteetako kolonizazioak, lurraldearen okupazioek, lurraldearen banaketa politikoak, errepresioek eta diskriminazio politikek hizkuntzaren kaltetan jokatu du.

Juaristik dioskunez etorkizunean gatazkak eta gizakien aurkako erasoak krudelagoak izango direla pentsa daiteke globalizazioarekin, eta berarekin batera hedatzen ari diren teknologia militar berrien laguntzarekin. Baliteke, mundu globalizatuko gatazka politiko eta militarrek zein genozidioek askoz ere kultura eta hizkuntza gehiago desagertzeko gaitasuna izatea.

¹⁸Atal hau osatzeko, berriro ere, Juaristiren HIZNETeko 1.1. gaiko apunteak erabiliko dir. (48-64. or)

2. Aldaketa soziokulturei lotutako arazoak

Luzatu gabe, zuzenean adibidetara joz, lehen adibidea topatzeko berriro ere samiengana bueltatu behar dugu. XIX. mendean hasita, samiek zapalkuntza jaso baitute arlo sozial, kultural eta erlijiosoan. Samiek beren kultura eta beren sinesmenak dituzte, horrek ematen die herri izaera, hizkuntzarekin batera. Norvegia, Suedia eta Finlandia, ordurako herrialde protestanteak ziren, eta horregatik, misiolari protestanteak bidali zituzten samien lurraldeetara protestantismora bihurtzeko asmoz. Horrelakoetan ohikoa den moduan, gehiegikeriak izan ziren tarteko. Ondorioz, samien kultur harrotasuna deuseztatu eta gutxietsi zuten, samieraren kalterako.

Eskoziara bueltatuz, berrikuntzek hizkuntza batean izan dezaketen eragina aztertuko dugu. Trenbide sarea eratu zenean, honek Eskoziaren urbanismoa aldatzea ere ekarri zuen. Hau da, trena pasatzen zen herriak garrantzia hartu zuten. Horrek esan nahi du herri horietan ingelesa Eskoziako gaelikoari tokia kenduz joan zela. Beraz, trena iritsi zen herrietan lehenago ahuldu zen bertako hizkuntza. Aldiz, nekazal guneetan hizkuntzak gehiago iraun du.

Hari horri jarraiki, hausnarketa gisa, Juaristik dio globalizazioarekin okerrera egingo duela hizkuntza gutxituen egoerak. Isolatutako herri gutxiago izango dira, beraz, hizkuntza handiek handitzen jarraituko dute eta txikiek txikitzen, desagertzen. Hedabideek darabiltzaten hizkuntzek arrakasta izango dute, oro har, hizkuntza handiek. Txikiek zailagoa izango dute mundu horretan bizirautea, nahiz ez den ezinezkoa.

3. Arrazoi ekonomikoekin lotutako arazoak

Aldaketa ekonomiko bortitzek hizkuntzengan duten eraginaren adibideekin jarraitzeko, kontuan hartu behar da turismoa izugarrizko garrantzia hartzen ari dela munduko ia txoko guzti-guztietan.

Lehenengo eta behin, Galesera egin dezagun jauzi. Galesera bizirik zegoen lekuetan, Galesko iparraldean eta mendebaldean, turismoa izugarri areagotu omen da. Hori dela eta, etxeen prezioak gora egin du nabarmen. Ondorioz, bertako gazteek ezin dute etxerik erosi landa eremuan eta hirietara mugitu behar dute, ingelesa nagusi den tokira. Horrek ingeles hiztunak galeseraren eremu naturalean txertatzea dakar, eta baita alderantziz ere,

gales hiztun gazteak ingelesaren eremu naturala den hirietara mugitu beharra. Horrenbestez, kaltetua galesera hizkuntza da.

Samiek ere badute zeresana afera honekin. Nahiz eta, gaur egun samien gutxiengoa izan elur-oreinen ustiaketatik bizi direnak, hizkuntza guneretan dago errotuen. Samien hizkuntza eta kultura sendoen bertan aurkitzen da.

Finlandiako samien kasuan, Finlandiako gobernuaren esku geratu dira samiek ohituraz erabili izan dituzten lurak elur-oreinetarako. Gaur egun, edozein finlandiarrek ustiatu ditzake lur hauek elur-oreinetarakoa, arrantzarako zein ehizarako. Suediako eta Norvegiako samiek ere gatazka mordoa izan dituzte estatuekin lurak direla medio: eztabaida, epaiketa eta liskarrak, lurak, basoak eta, oro har, baliabide naturalak direla eta ez direla. Honek guztiak samien hizkuntzan eragina badu. Tradizioz beren hizkuntzarekin lotutako lurak eta lanak estatuko hizkuntzekin lotzen hastean, samieraren gainbehera ekar baitezake.

4. Arrazoi demografikoei lotutako arazoak

Demografia, populazioaren mugimenduak, gorabeherak, joan-etorriak ... Aurrez aipatu dugu Eskozia eta Eskoziako gaelikoa. Eskoziako lehen demografia mugimendua industria iraultzarekin etorri zen. Hori zela eta, Eskoziako gaelikoa bizi-bizirik zegoen eremuetatik hirietako lantegietara lanera joan behar izan zuen jende andana batek, ingelesa nagusi zen eremura. Garai hartan, Eskoziako gaelikoak hiztun andana galdu zuen.

Juaristik hau aipatzen duen arren, ez da bakarra. Euskal Herrian ere antzerakoa gertatu zen, batez ere Bilbo industrializatu zenean. Euskara «baserriko» hizkuntzatzat geratu zen eta gaztelania bihurtu zen hiriko hizkuntza. Kasu honetan gainera, Espainiar estatutik Euskal Herrirako migrazio mugimendu handia gertatu zen.

Gaur egun ere, Europako edozein lurraldetan populazioaren mugimenduak gertatzen dira, batez ere, immigrazioa dela eta. Aurreko atalean aztertu dugun moduan, makina bat hizkuntza ez-europar ditugu gure inguruan, lehenago ez zeudenak.

Dirudienez, globalizazioarekin nekazaritza eremuetatik hirietarako joera areagotzen ari da. Hiriak gero eta handiagoak dira. Eta hori hizkuntza aniztasunaren kaltean datorkigu.

Batetik, migraziogatik etorritako hizkuntzek eragina izango dute Europako hizkuntza paisaia. Eta bestetik, makro-hirietan hizkuntza aniztasunaren ideiak gainbehera egingo du.

5. Erakundeen laguntza falta

Lehen esandakoak esanda, Europara begiratzen badugu ikus dezakegu 24 hizkuntza besterik ez direla ofizialak. Baina, dagoeneko badakigunez 60 dira Europako berezko hizkuntzak.

Samien kasuan, beren hizkuntzak ez du behar bezalako babesik erakundeen partetik. Suedian, Norvegian eta Finlandian samiek legebiltzar autonomoak lortu dituzte. Aurrerapauso bat bada ere, beren eskumena aholkuak ematea, eskariak egitea eta proposamenak egitea besterik ez da. Beraz, ez dute hizkuntza politika eraginkor bat egiteko adina indarrik.

Eskoziako gaelikoaren kasuan, berriz, Ingalaterrako erresumarekin bateratu zenetik ia gaur arte ez du ofizialtasunik izan; hau da, hiru mendez. 1998. urtean Eskoziak autonomia eskuratu zuen arte ingelesa izan da bertako hizkuntza ofizial bakarra.

Itxura denez, Europan ari dira pixkanaka gauzak mugitzen hizkuntza gutxituei dagokienean. Europar Batasuna horretarako baliabideak jartzen dabil.

Frantzia izango da, ziurrenik, Europako estatu zentralistenetako bat. Frantziako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Eta duela ez horrenbeste urtera arte hizkuntza bakartzat jotzen zen, nahiz jakin badakigun Frantzian bestelako hizkuntzak badirela: euskara, okzitania, bretoiera ... 2008an Frantziako konstituzioak bere lurraldeko hizkuntza gutxituak ondare gisa aitortu zituen. Hala ere, neurri honek ez die eskubiderik aitortzen hizkuntza gutxitu horietako hiztunei.

6. Jarrereri lotutako arazoak

Aurrez aipatu ditugu behin baino gehiagotan samiek jasan dituzten mota anitzetako jazarpenak. Bai Norvegiako, Suediako, Finlandiako eta Errusiako gobernuen aldetik, baita eliza protestantearen aldetik ere. Horrek guztiak, samien hizkuntza transmisioan eragina izan du. Aurrez aipatutako egoerek eta neurriek Europako beste ia hizkuntza gutxitu guztiei eragin dien bezala.

Euskararen kasuan ere Gerra Zibilaren ondoren Hegoaldean izan zen jazarpenak herri eta familia askotan transmisioaren etena ekarri zuen. Gainera, euskarak prestigioa galdu zuen nabarmen Iparraldean berriz, bi Mundu Gerretan iparraldeko hainbat gazte Frantziaren alde borrokatzera joateak frantziar nortasuna indartu zuen, eta horrenbestez, hizkuntzarekiko eta kulturarekiko atxikipena galdu zen. Eta berriro ere, euskarak frantsesaren aldean prestigioa galdu zuen.

Norbere hizkuntzaren prestigio faltak, batez ere gazteenen artean, beste hizkuntza batzuk nahiago izatera eramaten ditu, batez ere komunikabideetan agertzen diren hizkuntzak dira prestigio eta onarpen gehien lortzen dutenak. Horrek transmisioa etetea eta hizkuntza aniztasuna galtzea ekarriko du, kasu askotan.

7. Egoera linguistikoari lotutako arazoak

Aurrez aipatu gisa, Eskoziako gaelikoak duela gutxi lortu du kofizialtasuna. Horrek Eskoziako gaelikoa hitzunengan esperantza piztu zuen. Baina, egiatan ingelesak bizitzako esparru gehienak bereganatuak ditu. Eta hori dela eta, hitzunek erabilgarritasun gutxi ikusi diote eta ingelesaren aldeko apustua egin dute.

Espainiar estatuko Valentziako komunitatera joko bagenu, egoera linguistikoari lotutako beste arazo baten aurrean topatuko ginateke. Hau da, dialektoen banaketarena. Valentziako agintariek erabaki zuten bertan hitz egiten zen katalana, ordutik aurrera valentziera izango zela. Kataluniarekin ez baitzuten deus jakin nahi. Hortaz, berez hizkuntza bera izanagatik, izena aldatuta, defendatzen dutena da bi hizkuntza bereiz direla. Hizkuntzaren banaketa honek, hizkuntza bera ahultzen du. Besteak beste, Espainiako estatuaren barnean, valentzierak ez du babes ofizialik Valentzian. Aldiz, katalanak bai Katalunian.

Gurera etorritz, euskararen kasuan diglosia eta elebitasuna ezagunak dira. Euskara gaztelaniaren eta frantsesaren menpe bizi da. EAEn esan genezake, gaur egun, gazteen proportzio handi batek euskara ezagutzen duela. Koska, ordea, erabileran dago 2016ko kale neurketen arabera, %12,6 besterik ez da erabileran.

Juaristiren azken hausnarketa bezala, gutxitutako hizkuntzak estandarizatzen eta modernizatzen ez badira, oso negatiboak izango dira elebitasunaren eta diglosiaren, hizkuntzaren estatus faltaren eta beste hizkuntza batzuen eraginaren ondorioak. Areago,

gauzak asko aldatzen ez badira, 40 edo 50 urtetan munduko hizkuntza asko eta asko desagertu egingo direla pentsa daiteke.

4.6. Europar Batasuneko hizkuntza politika

Honaino ikusi dugun bezala, makina bat izan dira Europar Batasuneko hizkuntza gutxituen gainbehera ekarri duten arrazoiak. Hori dela eta, Europar Batasunak izan dezake zeresana afera honetan, estatuez goragoko erakunde den aldetik. Europar Batasunak bere tresna nagusitzat Itun Konstituzionala du. Bertan, hizkuntzei egiten zaizkien aipamenak dakarzkigu Paul Bilbaok 2006ko artikuluan eta HIZNETeko (2018-19) apunteetan.

Dagoeneko, behin baino gehiagotan aipatu dugu Europar Batasunaren ezaugarrietako bat dela hizkuntza aniztasuna. Gogora dezagun Europar Batasunaren ikurritza: *aniztasunean bildurik*.

Europako Itun konstituzionala

I-3. artikuluan instituzioaren helburuak zehazten ditu. Horren arabera, Batasunak bere kultura eta hizkuntza aniztasuna errespetatuko du eta Europaren kultura ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

Hizkuntza aniztasun horren atzean zer ezkutatzen den ez dago oso argi. Kontuan harturik gaur egungo Europar Batasunak duen egitura estatala, aniztasun hori estatuei dagokie. Baina, kide diren Greziak eta Frantziak ez dute beren barne-aniztasuna aitortzen eta bermatzen. Coyosek (2016:03) gogorarazten digu ituna Frantzian gaitzetsia izan zela.

Lisboako Ituna

2010eko Lisboako Itunaren arabera, 3.3. artikuluan Batasunak kultura eta hizkuntza aniztasunaren aberastasuna errespetatuko duela jasotzen du. Eta baita Europako kultura ondarearen garapena ere.

Horrez gain, Europako Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Itunaren 167.1 artikulua Batasunak kide diren Estatuak barne aniztasuna berma dezaten lagunduko duela jasotzen du.

Europako Batasuna estatuek osatua denez gero, ez da sartzen kide diren estatuen hizkuntza politiketan. Estatu bakoitzaren barne arazoa baita.

Araudi eta legeez gain, Europar Batasunak hainbat ekimen jarri ditu martxan gutxiengoaren hizkuntzei dagokienak:

-**EBLUL** gutxiengoaren hizkuntzen interesak sustatzeko sortutako gobernu kanpoko erakunde independentea da.

-**EUROMOSAIC**, Hizkuntza gutxituei buruzko azterketa bat egin zen. Hizkuntzei buruzko informazioa eta garatzeko zituzten arazoak aztertzeko.

-**MERCATOR**, hiru lan ildo ditu: hedabideak, hezkuntza eta legeria. Hizkuntza-gutxiengoaren arteko informazio trukaketan oinarritzen da.

-**ADUM**, gutxiengoaren hizkuntzen inguruan lan egiten dutenentzako informazioa zabaltzeko eta proiektu komunak egiteko sarea.

-**“Hizkuntza aniztasunerako estrategia berria”** dokumentua sortu zen 2005ean.

Europar Batasunaz gaindi, European baditugu hizkuntzen aferaz arduratzen diren beste zenbait erakunde. Besteak beste, Europako Kontseilua. Honen inguruan Paul Bilbaok HIZNETeko (2018-19: 8-15) apunteetan dakarren informazioa baliatu dugu.

Europako Kontseilua 1949an sortu zen eta gaur egun 46 estatuk hartzen dute parte. Europar Batasunaren parte diren estatu guztiak dira Europako Kontseiluko kide, hala ere, Europar Kontseiluan estatu gehiagok ere parte hartzen dute. Europako Kontseiluak hizkuntzarekin zerikusia duten hainbat tresna jarri ditu martxan:

1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena

Hemen jasotzen dena honakoa da: hizkuntzarenatik edota gutxiengo nazional bateko kide izatearenatik ezin dela bereizkeriarik egin.

1994ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa

Honen inguruan lehenik eta behin esan behar da ez dituela gutxiengoaren hizkuntzak aipatzen, testu osoan zehar definitu gabeko gutxiengo nazionala ari da. Ikus dezagun:

II. atala, 5. artikulua:

Gutxiengo nazionalei, hizkuntza mantendu eta garatzeko neurriak sustatzeko konpromisoa.

II. atala, 10. artikulua:

Gutxiengo nazionaletako kideei bere hizkuntza maila publikoan edo pribatuan erabiltzeko eskubidea aitortzeko konpromisoa.

Pertsonen eta administrazioen arteko harremanak gutxiengoen hizkuntzan ahalbidetzeko neurriak segurtatzeko ahaleginak egitea.

Atxilotze-arrazoiak gutxiengoen hizkuntzan jakinarazteko eskubidea bermatzeko konpromisoa

II. atala, 11. Artikulua

Izen-deitura gutxiengoen hizkuntzan onartzeko konpromisoa

Jendaurreko informazio, seinale eta abar gutxiengoen hizkuntzan jartzeko eskubideak aitortzeko konpromisoa.

II. atala, 14. artikulua

Gutxiengo nazionaletako kideek gutxiengoen hizkuntza ikasteko eskubidea aitortzeko konpromisoa.

III. atala

Estatuetako barne araudia errespetatu behar dute gutxiengo nazionaletako kideek.

Coyosen (2006:02) arabera, Frantzian ia-ia ez da aipatu ere dokumentu honen izatea. Senatari baten hitzetan, ez da beharrezkoa Frantzian horrelako tresna juridikorik.

1992ko Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna

Euroituna bezala ezagunagoa, akaso, Europako Kontseiluko 46 estatuetatik 32k sinatu dute. Hala ere, sinatzeak ez du inolako konpromisorik eragiten. Sinatu ondoren, estatuek konpromisoak hartu behar dituzte.

Helburu nagusitzat aberastasun kulturala babestea du. Hizkuntzei dagokienez, erregio edo gutxiengoen hizkuntzen aitortza horiek erabiltzeko eskubideari lotzen zaiela dio, ez aldiz, hizkuntzen ofizialtasunari. Estatuetakoa legedia ezin daiteke Euroitunaren printzipioen aurka joan.

Coyosek (2006:02) diosku Frantziak ez zuela itun hau onartu Frantziako Konstituzioaren aurka zihoalako.

4.6.1. Nola eragiten die horrek hizkuntza gutxituei?

Erdi Aroaren bukaeratik gaurdaino, hizkuntza-legeek historia luzea izan dute. Makina bat neurri, lege eta politika jarri izan dira martxan hiztunen hizkuntza-jokaerak aldatzeko. Horietako zenbaitek ez dute beren helburua lortu, beste batzuek bai, ordea. (Mackey, 1993:12). Hizkuntza gutxituei dagokienez, aurkako hizkuntza-politiken aurrean izan dira gehienetan.

Aurrez ikusi ditugun Europar Batasuneko neurri horiek Europako hizkuntza gutxituei nola eragiten diguten azaltzen saiatuko gara jarraian. Horretarako, Paul Bilbaoren 2006ko lana (116-117. or) hartuko dugu eskuetan.

Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu Europar Batasuneko neurriek ez dituztela hizkuntza gutxituetako hiztunen eskubideak jasotzen. Horrek de facto horien existentzia bera ukatzen du.

Jarraitzeko, Europar Batasunak aldarrikatzen duen aniztasuna termino iluna da, itzal asko ditu. Ez dakigu aniztasun horretan Europar Batasunean ofizialak diren hizkuntzei buruz ari zaigun edota Europar Batasuneko 60 hizkuntzen aniztasunaz ari zaigun. Beraz, aniztasuna definitu gabe egoteak asko zailtzen du hizkuntza gutxituen beharrei behar bezala erantzutea Batasunak. Hori gutxi balitz, lan neketsua suertatzen da hizkuntza plangintza egokituak egitea.

Europar Batasunera zuzendu nahi duen Europar Batasuneko herritarrak ezin du nahi duen hizkuntzatan egin honakoa, Europar Batasunak zehaztuta baititu lan horietarako hizkuntzak (arestian aipatu lege). Honenbestez, hizkuntza gutxituetako hiztunei mugak ezartzen zaizkie beste behin Batasunarekiko harremanetan.

Bilbaoren (2001:117) hitzetan, hizkuntza bati estatus ofiziala ez aitortzeak normalizazioa motel dezake. Alta, zuzenbide komunitarioak Euskal Herrian saltzen diren produktuen etiketak euskaraz egoteko balizko agindua ezinezko egingo bailuke. Hori horrela balitz, euskara hizkuntzen ikaskuntzaren programa guztietatik kanpo ere utziko luke. Hala ere, zinez paradoxikoa dirudi horietako programa batzuetan Batasuneko Estatuetan ez berezko ez ofizialak diren hizkuntzak kontuan hartzen direla, islandiera eta norvegiera esaterako.

5. Zer egin dezakegu egoerarik larrienean dauden hizkuntza horiek heriotza arriskutik ateratzeko? Nola eman buelta egoera horri?

Dagoeneko ikusi dugu 4.4. atalean (ik. 34. orrialdea) Europan badirela hizkuntza gutxiituak. Eta hauek arrisku maila ezberdinetan aurkitzen direla. Lanaren atal honetan, arriskuan dauden hizkuntzen egoera nola hobetu azaltzen saiatuko gara. Atal honi hasiera emateko, zer hoberik alor honetan aditua den Joshua Fishmanen 1991ko *Reversing Language Shift* liburuko hitz batzuk baino:

“The theory and practice of assistance to speech communities whose native languages are threatened because their intergenerational continuity is proceeding negatively, with fewer users (speakers, readers, writers and even understanders) or uses every generations”

Hizkuntza bat arrisku mailarik gorenean dagoenean, edota hurrengo urratsa hizkuntza galtzea denean, adituen iritziz dokumentazioak berebiziko garrantzia du horrelako kasuetan. Hau da, dokumentazio egokirik gabeko hizkuntza bat ez baita berpizterik izango. Horrez gain, hizkuntza bat galtzen den aldiro munduaren ikuskera bat galtzen dugu. (Drude, 2003) Hortaz, hizkuntza horretan idatzitako testuak (baldin badira), transkribapenak, itzulpenak, grabaketak, gramatikak ... egiteak izugarrizko garrantzia du.

Fishmanen hitzei jarraituz, eta kontuan izanik arriskuan dauden hizkuntzen sailkapena egiteko erabili dugun irizpideak zein izan diren, gakoa bertan egon daitekeela pentsa daiteke. Besteak beste, hizkuntza baten galerak transmisioaren etetea

badatza, hor eragin behar genuke lehenik eta behin. (Fishman, 1991; Romaine 2002, 2007; Drude 2003)

Fishmanek (1991) eta Romainek (2007) diotenez, ordea, kontuz ibili behar da honekin, arazo hau ez baita konponduko hizkuntza eskolan irakatsita. Askok uste izan duten bezala. Eskolan artifizialki ikasitako hizkuntza batek ez baititu beteko hizkuntza natural batek beteko dituen beharrak. Horretarako, hain gertukoa zaigun euskara dakarkigute. Euskararen transmisio naturala oraindik bizirik dago, zorionez. Nahiz eta, urte batzuetan beherakada handia izan den. Eta euskal gizarteak eskolaren eskuetan utzi duen transmisio lana.

Horretarako, lehenik eta behin hizkuntza horren gune naturalak indartu behar ditugu. Eta ez zenbait kasutan egin den moduan, hizkuntza gutxituarentzat gune artifizialak direnak bereganatu. Romainek (2007:123) dioskun moduan, euskaldunoi hau gertatu zitzaien. Euskararen ofizialtasunarekin batera, euskarak oraindik ukituak ez zituen gune “artifizial”etara egin zuen jauzi: administraziora, hezkuntzara, hedabideetara ... Ordura arte erdaraz zirenak euskal hiztunentzat, bat-batean euskaraz izatera pasa ziren, baina terminologia arrotza zaie. Horren ondorioz, euskaldun askok gaur gaurkoz oraindik ere nahiago dute gune “artifizial” hauetan erdaretan mugitu, ulerterrazagoa zaielako. Bestalde, eremu publikoa irabazten zen bitartean, euskara bere gune naturalak galtzen hasi zen: etxea, familia, lagunartea, ... Hots, transmisioa gertatzen den eremu naturala. Beraz, gune naturalak indartzea ezinbestekoa dela azpimarratu beharrean gaude. Dagoeneko errepikatu dugun moduan, transmisioa delako hizkuntza baten biziraupena bermatzen duena eta transmisioa gune naturaletan gertatzen baita.

Beraz, hizkuntza hil aurretik jaso dugu. Etxeko transmisioa bermatu dugu. Jarraian, erabilera bultzatu behar genuke. Hau da Fishmanen ideia nagusia, erabiltzen ez den hizkuntza batek ez du etorkizunik. Hizkuntza indarberritzeko (Mikel Zalbideren terminologia, RLS esateko) Fishmanek 8 pausu proposatzen ditu:

1. Helduen hizkuntza jabetzea.
2. Hiztun aktiboen komunitatea sortu. Ahozko erabileran zentratuta.
3. Erabilera informalarik emango zaio garrantzia. Eguneroko bizitzan eta adin guztietan hizkuntza erabiltzea bermatu.
4. Ahozko erabilera bermatuta, idatzizkoari garrantzia eman.

5. Oinarrizko hezkuntza hizkuntza horretan bermatu.
6. Lan mundurako jauzia.
7. Hedabide eta tokiko administrazio publikoetan erabili.
8. Goragoko eremu publikoetara zabaldu: gobernu, goi mailako ikasketak ...

Romainek (2007:125) Eskoziako gaeliko hiztunen kasua dakarkigu, euskararen antzekoa baita. Eskoziako gaelikoa eguneroko bizitzan errotutako hizkuntza zen. 40 urteko gizon batek hitzak dakarkigu jarraian. Gizonak dio Eskoziako gaelikoz egiten zuela familiarekin edota tabernara joatean. Eskoziako gaelikoz egiten zuen, betidanik hala egin izan zuelako eta ez, ordea, hala egin behar zuelako. Eskoziako gaelikoa zerbait artifizial bilakatzen bada, ez du gustura hitz egingo. Ez du nahi Eskoziako gaelikoa artifiziala bilakatzerik nahi, orduan jada ez baita Eskoziako gaelikoa izango. Horretarako, nahiago du hizkuntza desagertzea.

6. Eta euskara?

Aurreko ataletan zehar, euskara behin baino gehiagotan agertu zaigu. Batzuetan besteetan baino azalpen gehiagorekin.

Lehenik eta behin, esan behar dugu euskara ez dela munduko 6.000 hizkuntzen artean okerren dagoena, ezta Europa mailan ere. Hiztunen aldetik, behintzat, 750.000 inguru baditu. Halere, aurrez ere esan badugu ere, gogorarazi nahi dugu euskararen kaleko erabilera %12,6koa dela¹⁹.

Oraintsu esan badugu ere euskara ez dela munduan okerren aurkitzen den hizkuntza, tentuz ibili beharra dugu. Oñederrak gogorarazten digu, azken hiztun “erabat osasuntsuen”²⁰ belaunaldia orain ari dela desagertzen. Hauen ondorengook, gehiago edo gutxiago, elebidun zein eleanitz gara. Gainera, asko euskaldun berri dira eta denok gara euskaldun berri zenbait alorretan hizkuntza alor horietan berria den neurrian behintzat. (Oñederra, 1992: 10)

¹⁹ Datu hauek Soziolinguistika klusterrak 2016an egindako kale-neurketetatik jaso dira. Ik. Bibliografia.

²⁰ Erabat osasuntsu dionean, beste hizkuntzen ia interferentziarik gabeko euskaldun elebazarrez ari zaigu Oñederra. Ingurune elebazarretan hizkuntza erabili duten gure aitona-amonena, alegia.

Estatusari dagokionean, banaketa geopolitikoaren arabera asko aldatzen da egoera. Euskaldunok bi estaturen menpe gaude: Espainia eta Frantzia. Espainiaren menpean EAE (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Nafarroa izango genituzke. Frantziaren menpe, berriz, Iparraldea (Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa). Hau argiturik, EAEn euskara koofiziala da gaztelaniarekin batera teorian, nahiz eta errealitatean gaztelaniak duen nagusitasuna. Nafarroan, berriz, kasu berezia dute, hiru eremutan banatzen baitute Nafarroa hizkuntzaren arabera, eta horrekiko eskubideak aitortzen zaizkio hiztunari. Nafarroa iparraldea eremu euskalduna dugu, bertan euskara gaztelaniarekin batera ofiziala da. Nafarroako erdialdea eremu mistoa genuke, gaztelania soilik da ofiziala, nahiz eta euskaldunei zenbait eskubide aitortzen zaizkien. Hegoaldean, eremu ez-euskalduna dugu, gaztelania jaun eta jabe den eremua, euskarak ez du inolako ikusgarritasunik. Azkenik, Frantziako eremuan, dagoeneko argi geratu denez frantsesa da hizkuntza nagusi bakarra, euskara ondare moduan dago aitortuta.

Hori dela eta, arrisku mailetan sailkatu dugunean euskara ezin izan dugu unitate bakar gisa sailkatu, egoera oso ezberdinetan bizi baita. EAEko eta Nafarroa iparraldeko egoerari erreparatuz gero, arriskuan dagoen hizkuntzen taldean sartu dugu. Aldiz, Nafarroako gainerako eremuak eta Iparraldeko euskararen egoera okerragoa denez, guztiz arriskuan dauden hizkuntzekin sartu behar izan dugu.

Euromosaic ikerketak euskara B multzoan sailkatzen du EAEn. C multzoan EAEn eta D multzoan Ipar Euskal Herrian. Batetik, azpimarratzen du euskarak alboko hizkuntzekiko duen distantzia. Aipatu ez bada ere, euskarak ez du hizkuntza familiarik eta inguruan dituen hizkuntza erromantzeen aldean oso ezberdina da. Horrez gain, ekonomiaren aldaketak eta immigrazioak eragin handia izan dute eta horrek hizkuntza sustatu eta sortzeko bide berri eta berritzaileak indarrean jartzea ekarri du. Nafarroa C multzoan kokatzen du. Nafarroan 53.000 hiztun kontatzen dituzte. Eta azpimarratzen du, turista atzerritarren etorrerak eragina izan duela hizkuntzan. Iparraldearen kasuan, batez ere, Lapurdin turisten gorakada masiboak eragin handia izan omen du euskararengan. Zatiketa horren ondorio genuke, baita ere, Europar Batasunak eta haren hizkuntza politikek ezin dutela euskararengan zuzenean eragin, estatukako funtzionamendua baitu.

Euskaldunok badakigu, mugaren bi aldeetan hizkuntza errepresioak bizitu ditugula urte luzez. Hegoaldean, azken errepresioa Francoren erregimenarena izan genuela

aipatzen dute Bourhis eta Landryk. Hizkuntza-asimilaziorako politika sendoa aplikatu zen garai hartan, eta horrek etxe askotan transmisioa galtzea ekarri zuen ondorioztat. Frantzian, berriz, gaurdaino dirau frantziar estatuaren elebakartasun politikak. Nahiz eta, Coyosek (2006) azaltzen digun egoera zertxobait hobetu dela: Ikastolak legalak dira, Euskararen Erakunde Publikoa sortu da, Euskarazko irratiak badaude ...

Bi autore hauek, gogorarazten dute, diktadura frankista amaitu eta 1978an Espainiako Konstituzioa sortzerakoan, euskaldunok talde moduan mobilizatu ginela babes instituzionala lortzeko. (2008:176)

Konstituzio espainolak Espainiako herritar guztiak espainiera ezagutzera eta jendaurrean espainiera erabiltzera behartzen ditu. Hala ere, 1978. urtean autonomia-erkidego elebidunak sortu ziren. Eta horrek aukera eman zien Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak, Galizia eta EAEko herritarrei beren eskualdeetako hizkuntza ikasteko, eta zenbait esparru publikotan hura erabiltzeko, baita hezkuntza eta administrazio publikoan ere. (Bourhis, R. Y., & Landry, R., 2008)

Aurreko atalean, ikusi ditugun Fishmanen zortzi pausuei erreparatzen badiegu, ordea, ohar gaitezke pausu batzuk jauzi egin genituela. Lehen ere aipatu badugu ere, jakintzari eman zitzaion garrantzia. Kasu hau hartuta, Fishmanek 1993an *Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan* lana argitaratu zuen. Hizkuntza biziberritzeko pauso lehen, azken eta bakartzat hartu izan da eskola batzuetan; biziberritze horretarako pauso-urratsen jokaera integratu eta mailaz mailako baten aurrerabide gisa erabili behar da, ordea, eskola. Ondoren, dio eskolak ezin duela beregain hartu transmisioaren karga, transmisioa eskolaz haratagoko lana dela. Hizkuntza baten biziberritzea hezkuntzaz haratagoko prozesu konplexu bat baita.

Horrez gain, lan horretan Fishmanek euskara lanerako beharrezko ezaugarri izateari erreparatzen dio. Honela dio zehazki: “Lanerako euskara eskatzeak ez dakar berekin, besterik gabe, euskara belaunez belaun transmititzea: horretarako, langile euskaldunek elkarrekin ezkondu behar dute eta haurrak euskaraz hazi behar dituzte. Eta ez nolanahi, aski baldintza jakinetan baizik: euskaraz hitz egiten den auzoetan, euskara gero eta gehiago erabiltzen duten auzo-organismoekin (i.e. monitore, espezialista, zerbitzari eta laguntzaile euskaldunekin) eta euskara zinez azpimarratzen duten eskoletara bidaliz.”

Lan munduan euskara erabiltzeari buruz, Mackeyk (1993) beste iritzi bat dakarkigu. Mackeyk Quebecoko kasuarekin erkatzen du. Quebec-eko eskualde anglofonoetako hainbat udal-kontseilutan elkar ulertzeko elebitasuna sortu zuten. Hau da, bakoitzak bi hizkuntzak ulertzen ditu, baina bat baino ez du erabiltzen. Horrek bere gizabanako-duintasuna gordetzeko aukera ematen dio, menderatzen duen hizkuntza erabili behar baitu. Hari horri tiraka etorri zitzaigun pasa den urtean Euskaraldia Euskal Herrira. Hortik datoz “Ahobizi” eta “Belarriprest” figura, erabilera bultzatzea xedetzat duena.

Esandakoak esanda, egoera hobetu da. Baina Coyosi hitza hartuz, “ez du esan nahi besoak gurutzatuak egon behar dela”. Herritarren aldetik, badago zereginik, baina erakunde publikoei ardurarik kendu gabe. Hauek bere eskuetan dituzten tresnak martxan jarri behar baitituzte, hizkuntza politika eta plangintza eraginkorrak eginez.

7. Ondorioak

Ondorioen atalari hasiera emateko, lehenik eta behin aipatu nahi genukeena da hizkuntzen heriotza historian zehar gertatu dela. Eta argi dagoela aurrerantzean ere gertatuko dela. Kontua da, azken urteotako arrapaladan jarraitzen badugu urte gutxian munduko hizkuntzen erdiaren galera aurreikusten dela. Hizkuntza gutxituek dute horretarako aukera gehien, hizkuntza handienen mesedetan. Aitchinsonen hitzak ekarriaz, pentsatzen jar gaitezen zergatik dugun askok gure hizkuntza gainbeheran dagoenaren ustea.

Oraintxe adierazitakoak mundu osoko egoera deskriba lezake. Baina ez dezagun ahaztu Europar Batasunean ez gaudela askozaz ere hobeto. Dagoeneko, bizi garen tokian, 60 hizkuntza besterik ez baitugu. Horietatik %0,8 hizkuntza gutxituak dira, 4 milioi biztanlek hitz egiten dute hizkuntza gutxitu bat Europar Batasunean.

Horren aurrean, Europar Batasuneko agintariek neurriak hartu dituztela esango dute, aniztasunaren Europa dela eta. Bere lege eta eskubideak idazterako orduan, ordea, ez da argia; modu nahasi eta lausoan idazten baititu honakoak. Beraz, estatu bakoitzaren esku geratzen da horiek interpretatu eta indarrean jartzeko modua. Honenbestez, EBk ez ditu bera osatzen duten estatuak deusetara

behartzen, hizkuntzei dagokienean. Edo hobe esanda, hizkuntza gutxituen alde lan egitera.

Horri, gainera, gehitu behar zaio EBk estatuko funtzionatzen duela, eta azken finean estatu bakoitzaren hizkuntza politikak eragingo duela. Hori gutxi balitz, Haarmanek gogorarazten digu hizkuntzen mugek eta estatuen mugek ez dutela bat egiten. Beraz, esaterako, hizkuntza bat estatu batean baino gehiagotan banatuta badago ezingo zaio politika eta plangintza bakar bat aplikatu.

Manex Elortzak (2015:52) bere ondorioetan adierazten digu Europar Batasunaren hasiera kontuan izanda, aurrerapen handi eta garrantzitsuak burutu direla. Hala ere, ukaezina da etorkizunean benetako borondate politikoarekin jardunez gero, garai hartatik egundaino egindako ekarpenak adina ekarpen egiteko aukera dagoela.

Hizkuntza gutxituei dagokienean, Giordanek (1993) dio ez dela komunitate horietako hiztunen kontua bakarrik, gizateria osoaren ardura dela. Halere, lanean zehar asko aipatu den bezala, globalizazioak gogor eragingo die hizkuntza gutxituei. Bourhis eta Landryren ustez, hizkuntza gutxituek olatu hori aprobetxatu behar dute. Internetek eta hedabideek eskaintzen dituzten hizkuntza eta kultura aberastasuna aprobetxatu behar dituzte. Dagoeneko, Juaristik (2018-19) globalizazioari buruz esandako asko entzun baditugu ere. Jarraian, migrazioei buruz esandakoa ekarriko dugu: “*Munduko herrialde azpigaratueta bizi-eraren joera orokorrak ikusirik, pentsa daiteke etorkizunean migrazio mugimendu gehiago izango ditugula, eta horrek hizkuntzen galera areagotuko duela. Oso kontuan izan behar da, ia gehienetan gazteak izaten direla migratzen dutenak, eta horrek esan nahi du hizkuntza komunitate askoren jaiotza tasak gutxitu egiten direla, zaharren kopurua handitu egiten dela eta, oro har, hizkuntz elkarrekin ahultzen direla*”

Hizkuntzen biziberritzeari dagokionez, Fishmanek argi du zein den hizkuntza gutxituek hartu beharreko bidea. Bourhis eta Landryk (2008) uste dute askoz ere urte gehiagoz aplikatu beharko direla politika soziolinguistikoak eta hizkuntza-politikak. Oraindik ere, goizegi baita zein den modurik egokiena mundu osoko hizkuntza-gutxiengoen bizi-ondarra eta osasuna hobetzeko.

8. Bibliografia


- Aitchison, J. (2005). Language change. In *The Routledge Companion to Semiotics and Linguistics* (pp. 111-120). Routledge.
- Bilbao, P. (2006). Europako Itun Konstituzionalak eskubide gabe utzi ditu hizkuntza-komunitate ugari. *Uztaro*, 58, 105-118.
- (2018-19) 3.4. Hizkuntza eskubideen eta lege estatusaren egoera Euskal Herrian. HIZNET, Hizkuntza plangintza unibertsitate espezializazioa. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Asmoz Fundazioa.
- Bourhis, R. Y., & Landry, R. (2008). Hizkuntza-gutxiengoaren talde-bizindarra, kultura-autonomia eta ongizatea. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (67), 151-192.
- Campbell, L. & Belew, A. (Eds.). (2018). *Cataloguing the world's endangered languages*. Routledge.
- Comrie, B., Matthews, S. eta Polinsky, M. (2003) *The Atlas of Languages. Revised Edition*. New York: Facts On File.
- Coyos, J. B. (2006). Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian. In " *Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak*" X. Jagon Jardunaldiak-Euskaltzaindia, 2006-11-24, Bilbo (Vol. 51, No. 2006-2, pp. 985-997).
- Crystal, D., & Jordana, M. (2017). Hizkuntzen eta hizkuntza etxeen mundua. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (102), 105-110.
- Drude, S. (2003). Language vitality and endangerment.
- Eberhard, David M., Gary F. Simons, and Charles D. Fennig (eds.). 2019. *Ethnologue: Languages of the World*. Twenty-second edition. Dallas, Texas: SIL International. Online version: <http://www.ethnologue.com>.
- Erize, X. (2011). Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (81), 67-86.
- Esnaola, I. (2003). Euromosaic, hizkuntza taldeen egoera Europako Batasunean. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (46), 53-65.

- Extra, G., & Gorter, D. (2007). Regional and immigrant minority languages in Europe. *Handbook of language and communication: Diversity and change*, 15-52.
- Fishman, J. (1991). *Reversing Language Shift*. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages. Clevedon, UK: Multilingual Matters.
- (1993). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (10), 37-46.
- Gal S. (2006) Migration, Minorities and Multilingualism: Language Ideologies in Europe. In: Mar-Molinero C., Stevenson P. (eds) *Language Ideologies, Policies and Practices*. Language and Globalization. Palgrave Macmillan, London
- Giordan, H. (1993). Mendebal eta hego Europako hizkuntza gutxituak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (11), 107-119.
- Haarmann, H. (2011) Europe's Mosaic of Languages, in: *European History Online (EGO)*, published by the Institute of European History (IEG), Mainz. URL: <http://www.ieg-ego.eu/haarmannh-2011-en> URN: <urn:nbn:de:0159-2011081855> [2019-05-20].
- Hainbaten artean (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia
- Juaristi, P. (2006). Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*= *Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca*= *Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 51(2), 893-917.
- (2016). Hizkuntza-komunitateak harremanetan Euskal Herrian: balio etikoetan oinarritutako diskurtsoaren beharra. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*= *Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca*= *Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 61(2), 375-406.
- (2018-19) 1.1. Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan. HIZNET, Hizkuntza plangintza unibertsitate espezializazioa. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Asmoz Fundazioa.
- Junyent, C. (1996). Hizkuntzen bizitza eta heriotza. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 19.


- Kataluniako Generalitatea eta Balearetako gobernua (2002). Europako hizkuntzak zenbakitan. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (45), 25-31.
- Macarena, P. (2003). Adquisición del lenguaje. El principio de la comunicación. *Cauce*, 26, 321-347.
- Mackey, W. F. (1993). Hizkuntza jokaera-aldaketa legeen bidez. *Bat soziolinguistika aldizkaria*9, 17, 18.
- Moseley, C (ed.). (2010). *Atlas of the World's Languages in Danger*, 3rd edn. Paris, UNESCO Publishing. Online version:
<http://www.unesco.org/culture/en/endangeredlanguages/atlas>
- Oñederra, L. (1992). Hizkuntzen osasuna. Neurbide eta diagnosi linguistikoak. *Bat, Soziolinguistika aldizkaria*, 7(8), 141-157.
- Romaine, S. (1996) El lenguaje en la sociedad. Una introducción a la sociolingüística. Barcelona: Ariel.
- (2002) The Impact of Language Policy on Endangered Languages. *IJMS: International Journal on Multicultural Societies*. 2002, vol. 4, no.2, pp. 194-212.
- (2007). Preserving endangered languages. *Language and Linguistics Compass*, 1(1-2), 115-132.
- Salminen, T.(2007). Endangered languages in Europe. *Language diversity endangered*, 205-232.
- Sanchez Carrion, J. M. “Txepetx”. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. donostia: egilea.
- Soziolinguistika Klusterra, (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa*. *Euskal Herria*, 2016. <http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- eu 1.pdf> [Azken kontsulta: 2019-05-07]
- Zalbide, M. (1994). Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide. *Euskara, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39.

9. Eranskinak


Ethnologueko Europako hizkuntzen mapak txertatu ditugu ondoren, nahiz eta, badakigun Europako estatu guztiak ez daudela bertan:




Mapa 1 - Montenegro




Mapa 2- Austria




Mapa 3 – Belgika, Luxenburgo eta Herbehereak




Mapa 5 – Bosnia Hertzegovina, Kroazia eta Eslovenia




Mapa 4 - Bulgaria



Mapa 6 – Irlanda eta Erresuma Batua




Mapa 7 – Errusiako Europako zatia




Mapa 8 – Norvegia, Suedia, Finlandia eta Danimarka







Mapa 10 – Estonia, Letonia eta Lituania




Mapa 11 – Andorra eta Frantzia




Mapa 12 - Grezia




Mapa 13 – Portugal eta Espainia



Mapa 14 - Serbia



Mapa 15 - Ukraina



Mapa 16 – Liechtenstein eta Suitza